




ttipi-ttapa



EMAITZAK / 25-28



**EHUko Kriminologia
Institutuko Izaskun
Rekarterekin
solasean** / 8

**XXVII. Gasna eta
Artisau Feria
ekainaren 2an
Etxalarren** / 15

**Kultur Aroaren barne,
41. eskulangintza
azoka ekainaren 2an
Leitzan** / 33

**Berroetako bestak
ekainaren 7tik
10era ospatuko
dituzte** / 38

SINADURAK



KORO
IRAZOKI
ARBURUA / 3



AITOR
AROTZENA
ALBIZU / 3




AIALA
ZUBIETA
BERTIZ / 4



MIKEL
TABERNA
IRAZOKI / 4



ZOZKETA / 52



ALKATE ETA ZINEGOTZIEK EKAINAREN 15EAN HARTUKO DUTE KARGUA

Elgorriaga, Eratsun, Ezkurra, Ituren, Oiz eta Urrozen zerrendarik aurkeztu ez denez, urrian izanen dute udal hauteskundeak berriz egiteko deialdia. Legasa eta Nartabateko kontzejuetan ere bigarren deialdia izanen dute. / 25

'BIZOON'/123RF

Bat-bateko finala Saran

Euskal Herriko Eskolartekoaren bat-bateko finala Saran jokatu da ekainaren 8an. / 10

berako agenda

.eus

Ekaina

berako agenda

Ekitaldien gainerako informazio gehiago: 948 012 012 telefonoan edo www.berakoagenda.eus

6 ORTZEKUNA | **IGERILEKUEN IREKIERA**

Irekita
Ekainaren 6tik irailaren 8ra arte: 11:00-20:00.

Abonamenduak
Ekainaren 3etik 5era egiten ahal dira kiroldegian.
Ekainaren 6tik aitzinera igerilekuan bertan.

6 ORTZEKUNA | **IKASTAROETAKO IZEN-EMATEA**

Noiz Ekainaren 3tik 15era kiroldegian.
Igerilekuan Igeriketa, aquaerobika...
Kiroldegian Ziklo indoor, pilates, entrenamendu suspentsioan, ziklo gaztea, cross training, dantza mix, zumba...
Beti bezala, kiroldegiko muskulazio gelara abonatzeko ahal zara. Eskatu zure entrenamendua!!

6 ORTZEKUNA | **BILERA EUSKARALDIA: 2019AN ZER?**

BORTZIRIETAKO BILERA IREKIA

19:00 Beralandetan
Helburuak
- Hurrengo edizioaren informazioa partekatzea.
- Denon artean 2019an zer eta nola egingen dugun erabakitzea.

8 LARUNBATA | **MERKATUA BAZTAN-BIDASOKO EKOIZLEEN MERKATUA**

10:00-13:30 Ricardo Barja eskolan

8 LARUNBATA | **EKITALDIA BERA XXV. DANTZARI TTIKI EGUNA**

Antolatzailea Gure Txokoa Elkarte

8 LARUNBATA | **IV. IBARDINGO IGOERA MENDIKO JUNIOR MAILAKO NAFARROAKO TXAPELKETA**

12:30 Lehen parte-hartzailearen irteera (11:30ean errepidearen mozketak)
Antolatzailea Ziharka Sport

12 ASTEAZKENA | **LIBURU ETA DVD AURKEZPENA BORTZIRIAK SOLASEAN. AHOZKO TRADIZIOAREN BILDUMA**

18:30 Beralandetan
Argitaratzailea Euskokultur Fundazioa
Laguntzaileak Bortzirietako Euskara Mankomunitatea eta Euskarabidea, Nafarroako Gobernua.

14-16 EKAINA | **BESTAK ALTZATEKO BESTAK**

15 LARUNBATA | **KIROLA HERRIARTEKO TXIRRINDULARI GAZTEEN TOPAKETA**

Berako saioa / 17:00
Ibilbidea Matxada futbol zelaia, Matxada karrika, Illekueta karrika, Hegoalde karrika, Kanttonzabal karrika, Matxada karrika eta Matxada futbol zelaia
Antolatzaileak Gure Txokoa eta Altzateko bestak

ISIDORO FAGOGA
Musika Eskolako Emanaldiak

5 ASTEAZKENA | **TTIKIEN EMANALDIA 17:30** Musika eskolan

19 ASTEAZKENA | **HELDUEN ENTZUNALDIA 19:00** Musika eskolan


KULTUR

27 ORTZEKUNA | **MUSIKA IZAKI GARDENAK**

20:30 Herriko etxeko plazan Doan
Antolatzaileak Nafarroako Gobernua
Argibide gehiago izakigardenak.com eta culturavarra.es/es/kultur

BERAKO ERRALDOEN KONPARTSAN PARTE HARTZEKO DEIALDIA

Ate irekien jardunaldiak (16 urtetik goitikoentzat)
11:00-13:00 Herriko etxeko plazan
22/29 Larunbata





NIRE TXANDA

KORO IRATZOKI ARBURUA

Maitasun kontuak

Nor maite duzu gehiago? Aita edo ama? Galdera ergel hori etorri zitzaidan burura aspaldixko egunkari batean agertu zen testu bat irakurri ondotik.

Ea, maitasuna nola neurtzen da? Kiloka? Litroka? Metroka? Edo beharbada, bihotzaren kontua bada, elektrokardiograma bat eginez? Nola jakiten da pertsona bat bertzea baino gehiago maitatzen dela?

Ba, aipatutako testu hartan bertze neurketa hau planteatzen zen: ONGI maitatzea, edo GAIZKI maitatzea.

Eta begira adibide hauekin zeinen ongi konprenitzen den hori:

Ongi maitatzea ZAINTEA da, baino ito gabe. Ongi maitatzea ONARTZEA da eta ez bertze persona aldaraztea edo idealizatzea. Ongi maitatzea bertzearekin KRITIKOA izatea da baino epaitu gabe. Ongi maitatzea MOTIBATZEA da eta ez eskasa dela sentiaraztea... Beraz, maitatze afera ez da kantitate kontua, kalitate kontua baizik.

Eta zuk, nola maitatzen duzu?

**«MAITATZE AFERA
EZ DA KANTITATE
KONTUA, KALITATE
KONTUA BAIZIK»**



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Ur honetatik ez dut edanen!

Ur honetatik ez dut edanen. Apeza hau ez da nere aita. Inoiz erran behar ez diren solasak, badaezpada. Kanta honekin ez dut inoiz spinning egiten esaldiarekin ere gauza bera. Barricadaren Blanco y negro abestiarekin pasatu zait. Duela 25 urte aditzen nuenean ez bezala, ondotik ura ausarki edanez, aurpegia zuri, bekokia beltz, mekaguen D...ka.

NABARMENTZEKOAK



**MIGEL ANGEL
SAGASETA**
OMENDUA



**LEIRE
BARAIBAR**
KORRIKALARIA

Urte luzez dantzen inguruan egindako ikerketa eskertuz, Euskal Dantzarien Biltzarrak omenaldia eskaini zion Migel Angel Sagaseta iturendarrari Arizkungo Mutildantza Egunean.

Leitzako Mendi Erronkaren barne, aurten estreinakoz lasterketa erreleboka egin dute eta Leire Baraibar aresoarrak eta Ion Erdaidek osatutako bikotea hirugarren gelditu da.

ATZERA BEGIRA



2009-05-28 · TTIPI-TTAPA · 495 zk.

Elizondoko komisaria eztabaidan

Elizondoko Baztanberri auzoan Foruzaingoaren komisaria berria egiteko proiektuak eztabaida handia sortu zuen duela hamar urte. Proiektuaren kontra astebetean 759 sinadura bildu zituzten eta manifestazioa ere deitu zuten. Javier Caba-llero orduko Nafarroako Gobernuako Barne kontseilariak eta Virginia Aleman orduko Baztango alkateak komisaria eraikitzeak hitzarmena sinatua zuten 2009ko apirilean. Udalak doan utzi zion Gobernuari lur eremua, eta honek gastuak bere gain hartzekoak zituen. Alemanen hitzetan, «hirigintzako baldintzak betetzen dituen bertze lur eremurik ez dago momentu honetan Elizondon». Xabi Torres Elizondoko alkateak, berriaz, «proiektua bertan behera uzteko» eskatu zuen.



erran.
eus

TOKIKOM

Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea
Nerea Bazterrika
Eneritz Iraola
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usua Vicente
Berriemakileak
Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre,
Koro Iratzoki, Nerea Altzuri,

Joseba Urrotz, Irune Elizagoien,
Maidor Petrirena, Oihana
Kalparsoro, Fermin Etxekolonea,
Fernando Etxeberria, Mattin
Larralde, Juan Mari Barriola, Iñigo
Imaz, Marga Erdozain, Maitane
Maritorea, Aranba Iturralde,
Aranba Gamio, Jaione Ariztegi,
Jaione Zabalo, Nerea Mortalena,
Virginia Oteiza, Pierre Bastres,
Ainhoa Asitz, Itxaso Arizmendi,
Xabier Maritorea, Maialen Iantzi,
Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea
Pello Apeztebea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia
Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko udalak,
Malerrekako Zerbiltzen Mankom.,
Zugarramurdiako Akelarre elkarte
2019ko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi 38€
eta Malerreka 26€
Leitza 44€
Hego Euskal Herria 83€
Ipar Euskal Herria, Europa 130€
Amerika eta Australia





KOLABORAZIOAK

AIALA ZUBIETA BERTIZ

Espezieen inbasioa, biodibertsitatearen galera

VIPBES-ek, Biodibertsitate eta Ekosistemen Zerbitzuei buruzko Gobernuarteko Plataformak, gizateriaren historian inoiz gertatu den naturaren degradazioa handiena ematen ari dela argitaratu eta horren ebidentziak azaldu ditu. Munduan milioi bat inguru animalia eta landare espezie daude galtzeko arriskuan eta anitz hurrengo hamarkadetan desagertu daitezke.

Honen erantzule gu gara, *Homo sapiens* espeziea, munduan dauden milioika espezieetako bat, ez bertzeak baino garrantzitsuagoa. Gure jarduerak eragile zuzenak dira munduko espezie guztiak, gu barne, arriskuan jartzeko. Gai hauetan adituak diren 400 bat pertsonen sailkatu egin dituzte naturan aldaketa eragiten duten borts eragile zuzen, horietako bat garraiatzen ditugun espezie exotiko inbaditzaileak izanik. Horien adibide garbiak baditugu inguruan; panpako belarra, sasiakazia, tximeleten zuhaixka, liztor asiaticoa, koipua,...

Aipatutako espezieak eta bertze hainbat estatutako zein erkidegotako Espezie Exotiko Inbaditzaileen Katalogoetan daude barneratuta, baina

«BIODIBERTSITATEAREN GALERA EKIDITEKO ERANTZUKIZUNA DENONA DA»

inbaditzaile guztiak ez daude katalogo honetan. Zergatik?

Eukalipto da adibide bat. Nahiz eta gure eskualdean ez den espezie arrunta, bizilagun ditugun erkidegoetan arazoak

sortzen dituen landarea da. 60ko hamarkadan gobernuak espezie honen landaketak gomendatu eta diruz laguntzen hasi zen eta denbora aski gutti behar izan zuen eremuak kolonizatu eta arazoak sortzen hasteko. Eukalipto estatuko Espezie Exotiko Inbaditzaileen Katalogoan sartzeko zenbait ahalegin egin dira orduz geroztik, baina «zerbaitek» zerrenda horretatik kanpo utzi du beti. Azken ahalegina 2017an izan zen, Ingurumen Ministerioaren Batzorde Zientifikoak txosten bat egin zuen eukalipto Katalogoan barneratzea aholkatuz, eta adituak diren batzordekide guztiek aho batez adierazi zuten horrekiko adostasuna. Hala ere, Ministerioak berak baztertu egin zuen bere Zientzia Batzordeak adierazitakoa, batzorde honek «iritzi pertsonal eta politikoak» zituela erranez.

Kontua da, erantzun hori emateko ministerioak pertsona bakar bat kontsultatu zuela, hain zuzen ere mendi-ingeniaritzan doktore eta katedradun den pertsona bat, baso genetikan egindako lanagatik ospetsua dena eta eukaliptoekin lan egiten duena. Beraz, inbasio biologikoetan adituak diren hainbat pertsonen prestatutako txostena alde batera utzi eta pertsona bakar batek emandako iritzia kontutan hartu zen. Azken finean, pertsona gutti batzuen interes ekonomikoetan oinarritutako erabakia izan zen, bertze hainbatetan bezala.

Biodibertsitatearen galera ekiditeko erantzukizuna denona da, baita lau urtero (eta azken aldian maizago) aukeratzan ditugun politikariena ere, norbanakoen interesak alde batera utzi eta guztion aldeko interesak defendatzea baita beraien eginkizuna.



MIKEL TABERNA IRAZOKI KAPI

Hauteskundeentz aitzinetik

Ez da oraindik maiatzaren 26a ailegatu nire bizitzara. Lehenagotik ari naiz. Horregatik, ez dakit zer gertatu den hauteskundeetan. Hegoaldeko partetik ari naiz; konprenituko didazue. Orain idazten ari naizen lerro hauek paperean irakurtzeko tenorean, nola egonen ote naiz? Kontent ala kezkatutik? Etorkizuna argi edo ilun ikusiko ote dut? Zuk jakinen duzu orain. Zer atera da? Idiskoa ala urrixa?

Hiru hauteskunde klase oraingoan. Alde batetik, Estrasburgo. Harat ere bidaliko omen dugu jendea gure boto-paperekin (horrat bai: Iparraldetik eta Hegoaldetik). Ez dakigu sobera garbi non dagoen, eta gogoia ematen digu paso egiteko, baina erabaki arrunt garrantzitsuak hartzen omen dituzte han. Zer ote dakite gutaz? Nola ikusten ote gaituzte handik? Ikusten baldin bagaituzte... Hain tikiak gara!

Iruñea diferente da. Belate pasatu behar bada ere, gaur egun hango Parlamentuan zer eguraldi egiten duen, hemen ere segituan sumatzen dugu. Ez guretzat bakarrik; Espainiarentzat ere hagitz inportantea bide da Nafarroan gertatzen dena.

«HALAKO KARGU ETA KARGARIK EZ DUGUNOK ERE BADUGU ZER EGIN»

Horregatik, Madril ere urrunxko egonagatik, handik uste handiko politikariak etorri dira kanpaina egitera, euren presentzia hurbilarekin jendea konkistatu nahizik. Izan ere, Iruñean, denoi eragiten diguten afera

potoloetan, gutti aski da balantza alde batera edo bertzera mugitzeko. Parean samar zuriak eta beltzak. Indarrak pilatzen eta jokatzen hobekien dakienak irabazten du.

Eta zer dugu hurbilenekoetan? Gure udaletxeetan nork gobernatuko du orain? Badakit gure eskualdeko leku batzuetan ez dela inor prest agertu hautagai izateko. Entenditzen dut ez direla kondizio berberak izaten herri handi eta txikietan. Ordu franko sartu beharko dira, eta aunitzetan musu-truk. Nork jasan pisu hori? Edo nola partitu zama?

Tentazioa izan dut eskutitz bat idazteko hemen, orain sartzen diren alkate eta zinegotzi berriei, nik zer nahiko nukeen adierazteko, Olentzerori edo dena delakoari Eguberrietan egiten zaion bezalaxe. Baina utziko ditut bakean; eurek jakinen dute. Ea lau urteren buruan satisfos gelditzen diren euren buruarekin, lortu dutenarekin, eta ea jende gehiena ere konforme samar uzten duten.

Zer garen eta zer izan nahi dugun, gure argazki moduko bat egiten digute hauteskundeek. Bertan ageri gara botoa eman dugunok. Baina botorik eman ez dutenak ere hortxe daude, ikusi nahi izanez gero; horiek ere kontuan hartu behar, nahitaez. Zorionez, mundua ez da fini trono eta aulki berezi horietan bat edo bertzea jartzeagatik. Bada non aritu hortik aparte; halako kargu eta kargarik ez dugunok ere badugu zer egin: gure ingurumena, gure lana, gure hizkuntza, gure osasun sistema, gure hezkuntza, gure errepideak, gure pentsioak, gure garraiobideak eta gainerakoak hobetu nahi baditugu, ezin gara gelditu ez horietara ez zerura begira.

11 GALDERA LABUR

ASIER GAMIO IGOA BERROETAKO GAZTEA

«Zopetan 115 lagun inguru biltzen gara eta giroa hobetu da»

Nor da Asier Gamio?

Kirola, animaliak, besta egitea, Sadarrera joatea... gustuko duen 26 urteko mutil alai bat.

Zer egiten duzu egunerokoan?

Lanak uzten didan denbora kirolean edo itegiko lanetan pasatzen dut; asteburuak, berriz, besta egiteko, mendira joateko edo lagunekin egoteko baliatzen ditut.

Laster herriko bestak dituzu. Nola bizi dituzu?

Ilusioz eta gogoz, aurten libre ditut gainera! Ortziralean afaria, larunbatean gazte-bazkaria, arratsaldeko ekitaldiak eta besta, igandean familiarekin eta astelehenean goizeko bizikleta-ibilaldia eta musaren ondotik, zikiri-jatea izanen dugu.

Antolakuntzan ibiltzen zara?

Bai. Egun horietan zenbait ardura izateaz gain, kontuak eraman behar dituen ardura-dunetako bat naiz. Kanbioak prestatzen, fakturak ordaintzen, dirua biltzen... ibiliko naiz. Horrez gain, ostatuko txandak ere denen artean egiten ditugu.

Nola moldatzen zarete antolatzeko?

Otsail inguruan batzordeak banatzen ditugu eta hortik aitzinera bakoitza bere lanetan zentratzen da, zahar zein gazte, denok parte hartzen dugu.

Zer dute Berroetako bestek bertzeek ez dutena?

Herritarren arteko tratua, gazte zein zahar, denok elkarrekin ibiltzen gara.



Eta zer falta zaie?

Aniztarrez gain, jende gehiago hurbiltzea eta eguraldi ona. Zein ekitaldi duzu gustukoan?

Bezperako zopa-jatea eta gaupasa, hasmenta izaki, indar eta gogo gehien duguna da...

Azken urteetan aldaketarik sumatu duzu?

Bezperako afarian gehiago biltzen gara eta giroa hobetu da. 120 biztanle gara eta 115 lagun inguru izaten gara. Zikiroa, berriz, moteltzen ari da.

Aurten bada berrikuntzarik?

Musika taldeak ez dira joan den urteko berak eta dantzarien emanaldia eta motozerira-erakustaldia berrikuntzak izanen dira.

Udan besta gehiago... Zein dira berezienak?

Denen gaintetik Baztandarren Biltzarra aipatuko nuke, berezia da. Horrekin batera, gustuko ditudanen artean daude sanferminak eta Zigako bestak...



1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak toailak
Edredoi-azal nordikoak

Ohe estalki kolekzio anitza



IRAKURLEAK MINTZO

Aunitz Eskuetan

MIKEL OLAZAR | AUNITZ ESKUETAN

Urtebete pasa da Malerreka eta Bertizaranako hainbat txokotan herri-galdeketa antolatuta genuenetik. Prozesuak berak hilabeteak iraun zituen, eta lan karga handia ekarri zuen taldearentzat, baina lanak bere fruituak eman zituen herritarrak bozkarekin ilara egiten ikusi genituenean. Erakunde bezala antolatuta genuen ekimena ariketa demokratiko bat izan zen funtsean, herritarrak oinarritzko eskubideak zein diren jabetu daitezzen eta jarduera publikoan murgildu daitezzen. Gauzak horrela, Aunitz eskuetan erakundetik bide honetan lanean jarraituko dugula azpimarratu nahi dugu. Horregatik, datozen hilabeteetan erreferendum bidez erabakitzea lortzeko herri ekimena sustatzea helburu duen erronka kolektiboari jarraiki, jendeari bertan parte hartzeko gonbidapena helarazten diogu.

Espainiako Arartekoa eta ETB3

JOSEBA OTANO VILLANUEVA |
ETB3-REN ALDEKO PLATAFORMA

Nafarroan legegintzaldia bukatzerako, eta ETB3 –haurrentzat euskaraz dagoen kate bakarra– ezin ikusi da Nafarroako toki gehienetan. Espainiako Gobernuak, hala, ez du betetzen berak sinatutako Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Ituna (11.2 artikulua). Gure kexak Espainiako Arartekoarengana iritsi dira, baina hari (Francisco Fernández Marugán arartekoa) ez zaio inporta Nafarroako haur askok ETB3 ikusterik ez izatea (besteak beste, ofizialki «eremu euskaldunetan» dauden Sakana eta Baztango hurrek).

Hala adierazi digu apirilean eman zigun erantzunean: «*No se ve justificado continuar la tramitación de su queja*» [Zure kexa bideratzeko arrazoirik ez dago]. «Espainia aberatsa izanik mintzaira-moldez, bereziki errespetatu eta zainduko da kultura-ondare hori». Hala dio Espainiako Konstituzioaren 3.3 artikulua, baina argi dago baliorik gabeko hitzak direla Espainiako Gobernuarentzat eta Espainiako Arartekoarentzat. Nafarroako Gobernuak hirutan eskatu dio baimena Espainiako Gobernuari ETB3 Nafarroa guztian emititu ahal izateko, 2016ko ekainean, 2017ko urrian eta 2017ko azaroan. Ez du inoiz erantzunik ez konpromisorik jaso. Pedro Sánchez: konponbidea behar dugu behingotan.

Inposizioa eta ez ikasteko eskubidea

AMAI A ZUBIETA GARTZIAINDIA |

Legealdi osoan eskuinaren obsesioa izatez gain, hauteskunde-kanpainan ere euskararen irakaskuntzaren inposaketa «mantra» errepikatzen aritu da behin eta berriro (...).

Ez nau hainbeste kezkatzen akusazioaren ageriko gezurrak, ohikoa baita alderdi batzuk euskara gaia jorratzen dutenean; kezkatzen nauena oraingo gobernuaren sostengatu duten lau alderdietako ordezkariak ematen dituzten erantzunak dira. Inori ez zaio bururatzeko esatea Nafarroako ikasleei inposatzeko zaienik matematika, gizarte zientzia edo ingelesa ikastea, nahiz eta arlo horiek, eta beste batzuk, derrigorrezkoak izan. Nafarroan bi hizkuntza propio edukitzeko pribilegioa dugu, baina ikasle askori ez zaie bermatzen

ezta oinarriko euskararen ezagutza ere. Horregatik, entzuten edo irakurtzen dudanean euskara ikastea derrigorrezkoa izatea ezin dela planteatu, haserretzen naiz. Hizkuntza hori Nafarroako ikasleen oinarritzko curriculumetik at egotea arduragabekeria besterik ez da.

Gurasoek, etxean hezteaz gain, hezkuntza formalean parte hartu ahal eta behar dute: federazioen bidez hezkuntza politikaren inguruko proposamenak egin, antolakuntzaz eztabaidatu ikastetxeetan edota iritzi kritikoak plazaratu... Baina ezin da utzi beraien esku «curriculumak aukeratzeko askatasuna», edo hobe esanda, ezin zaie utzi ukatzen seme-alabei eduki batzuk ikastea. Oraingoz «ez ikasteko eskubidearen» aldarrikapena bi kasutan zehaztu da: euskara ez ikasteko eta SKOLAEn parte ez hartzeko, heziketa afektibo-sexualari eta berdintasunari uko eginez. Ez da existitzen, eta ezin da existitu, «ez ikasteko eskubidea». Alderantziz, ikasle guztiei bermatu behar zaie euskara eta generoen arteko ekitatea «ikasteko eskubidea». Ahalik eta baliabide gehien eskaini eta gizarte demokratiko eta kohesionatu batean errespetuzko herritarrak eta kritikoak izaten laguntzeko elementuak eskura jarri behar zaizkie. Nafarroa osoan euskararen ofizialtasunak euskara ikastea beharrezkoa dela argitzen erraztuko luke, baina hori lortu arte inposizio/askatasun hitzak erabiltzeaz utzi beharko genioke eta beste egokiago batzuk aukeratu, adibidez hizkuntza ondarea eta ekitatea. Hurrengo legealdirako erronka Nafarroako ikasle guztioi euskara edo euskaraz ikasteko aukera eskaintzea izan beharko luke, gurasoei edo indar politikoei ukatzeko aukerarik eman gabe.

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58



BIOTERRA

Produktu ekologikoen, bioeraikuntzaren, energia berriztagarrien eta kontsumo arduratsuaren azoka

7 · 8 · 9 Ekaina FICOBBA Irun



energia berriztagarriak



osasuna



habitat osasuntsua



ideia berdeak



textil ekologikoa



ekoturismoa



nekazaritza ekologikoa



zentsudun kontsumoa



elikadura osasuntsua



kosmetika ekologikoa



terapia naturalak



BIOTERRA



FICOBBA



DOHAINIK

Txipi Txapa



BIOTERRA
2019

GONBIDAPENA

Sarreraren prezioa gonbidapen gabe: 3€ (12 urte arte doan)

Produktu ekologikoen, bioeraikuntzaren, energia berriztagarrien eta kontsumo arduratsuaren azoka

7 · 8 · 9 Ekaina FICOBBA, Irun.

Gonbidapen hau moztu eta azokaren sarreran aurkeztu



#Bioterra2019



DOHAINIK

Ficobara, zalogaz irenean!
(Irun-Ficoba geltokia)



bioterra.ficoba.org



Izaskun Rekarte Bengoetxea Gizarte Antropologia Gradua egiten ari da Donostian. UTZITAKO ARGAZKIA

IZASKUN REKARTE BENGOTXEA EHU-KO KRIMINOLOGIA INSTITUTUKO IKERLARI BERATARRA

1960tik 1978ra Nafarroan gertatu ziren tortura eta tratu txarrak ikertzen ari da beratarra eta tartean eskualdeko testigantzak ere bildu dituzte. Proiektua ekain hondarrean aurkeztuko dute

G. PIKABEA BERA

Proiektu handia du esku artean Izaskun Rekarte Bengoetxeak (Bera, 1997). EHU Euskal Herriko Unibertsitateko Kriminologia Institutuko ikerlaria da eta Nafarroako Gobernuak hala eskatuta, 1960tik 1978ra bitarte Nafarroan gertatutako tortura eta tratu txarrak ikertzen dihardu. Ez dabil bakarrik; izen handiko profesionalekin ari da lanean, Pako Etxeberria mediku forentsearekin eta Laura Pego zuzenbidean doktorearekin, bertzeak bertze. Rekarteri tratu txarrak eta torturak jasan zituztenen testigantzak biltzea egokitu zaio, informazioa bildu, aztertu eta sailkatzea, eta aitortu digunez, «lan gogorra baina emankorra» izaten ari da. Are gehiago, etorkizunera begira, ikerketan segitu nahi du, «batez ere memoria historikoa eta hurbileko memoria lantzen». Eskuetan duten proiektua ekain hondarrean aurkeztuko dute.

Zertan datza proiektua?

Ikerketa Nafarroako tortura eta tratu txarren proiektua:

1960-1978 da eta atxiloketa erregimenean atxilotuek jasandako tratu txar eta torturak modu kualitatibo nahiz kuantitatiboan ezagutzea du xede. Honetarako, gertaera horiek jasan dituztenen lekukotzak jasotzen ditugu, eta beraiek ezin duten kasuetan, hurbileko pertsonaren testigantza. Profiler dagokionez, edonon tratu txarrak nahiz torturak jasan dituen Nafarroako edozein biztanle edo Nafarroan tratu txarrak edo torturak jasan dituen bertze edozein jatorritakoa izan daiteke.

Nola ailegatu zara proiektu honetara?

2015ean EHU-n Gizarte Antropologia Gradua egiten hasi nintzen eta 2017an, *Violencia masiva, fosas comunes y derechos humanos. Perspectivas*

desde las ciencias forenses y sociales udako ikastaroan parte hartu nuen. Han Paco Etxeberria eta Laura Pego irakasleak ezagutu nituen eta beraiek esku artean zuten proiektuan parte hartzea eskaini zidaten. Etxeberriarekin Nafarroako tratu txar eta tortura kasuak ikertzen hasi nintzen. Nire egiteko nagusia atxiloketa erregimenean tratu txar eta torturak jasan zituzten pertsonen testigantzak jasotzea izan da. Testigantzak jaso ondotik, horien transkribapena ere egin dut, hau da, hitzez hitz beraiek errandakoa idatzi dut, baita begi hutsez ikus daitezkeen gorputz espresioak adierazi ere. Horrek ondotik egiten den analisisa errazten du. Azkenik, informazio hori guztia aztertu eta sailkatzen ibiltzen naiz,

«TORTURAK JASAN DITUZTENEN TESTIGANTZAK BILDU DITUT»

«PROFESIONAL BEZALA BURUA HOTZ IZATEN IKASI BEHAR DA»

baita bertako informazioa datu-basean sartzen ere.

Nolatan hasi zineten ikerketa honekin?

Ikerketa hau baino lehen Araba, Bizkai eta Gipuzkoan bertze ikerketa bat egin zuten: *Proyecto de investigación de la tortura y malos tratos en el País Vasco entre 1960-2014*. Ikerketa horren harrera ona ikusirik, eta Nafarroan hainbat kasu zeudela jakinik, Nafarroan ere gauza bera egitea egokia izanen zela pentsatu zuten. Nafarroako Memoria eta Bizikidetzak Zerbitzuak proiektua martxan jartzea erabaki zuten.

Horrelako ikerketa batean parte hartzen duzun lehen aldia duzu?

Gai honen inguruko nire lehen ikerketa da. Aitzinetik euskararekin loturiko bertze ikerketa kolektibo bat egin nuen, *Ekolinguia*, Donostiako Udalak eta EHUk antolatua. 14-20 urte bitarteko Donostiako nerabeei euskararen inguruan hausnartzeko gune bat eskaini zitzaion eta guk bertan adierazi ziren hausnarketa nahiz iritziak jaso genituen, gero analisisa egiteko. Ondotik, memoria historikora gehiago hurbilduz, XX. mendeko emakume kirolari profesionalak: Raketisten fenomeno eta desagerpena ikerketa egin nuen unibertsita-

tateko hiru lankiderekin. Emakume ausart horien bizipen eta profesionalizazio-prozesua aztertuguen, baita gauregun raketisten fenomenoaren nola doan ere.

Nafarroan orain arte ez da tortura edo tratatu txarren inguruan halako ikerketarik egin, ezta?

Saiakera batzuk izan dira. Adibidez, zenbait herritan herri-ekimenez eginiko hemeroteka batzuk egin dira edo hainbat elkarte edo talde izenen zerrendak egiten ahalegindu dira; hala nola: Euskal Memoria, Torturaren Aurkako Taldea, Haika... Baina Nafarroako Gobernuak proiektu hau egiteko eskatu duen lehenbiziko aldia da. Era honetan ikerketa honi ofizialtasuna eta legimitatea eman zaio. Kasu horiek guztiak ikertzea beharrezkoa da, du-darik gabe. Kasu horien inguruan dagoen isiltasunarekin apurtzea beharrezkoa da, baita gertatutakoa argitzea ere.

Nolako metodologia erabiltzen duzue?

Bi metodologia erabiltzen ditugu: alde batetik, metodologia kuantitatiboa eta bertzetik, metodologia kualitatiboa. Metodologia kuantitatiboari dagokionez, herriz herri ize-nekin zerrenda bat osatzen ari gara, norbanako bakoitza identifikatzeko zenbait datu jasoz: izen-abizenak, jaiotze-data eta bizilekua. Ondotik, atxiloketa eta tratatu txarrak edota torturak jasan zituzteneko datuak jasotzen ditugu: noiz atxilotu zuten, nora eramane zuten, estatuko zein indar armatuk gauzatu zituen tortura praktikak... Bigarrenik, metodologia kualitatiboa erabiltzen dugu, non pertsona bakoitzak bere bizipena kontatzen digun. Lekukotza horiek

bideo-kameraz grabatzen ditugu. Era honetan transkribapenak egin daitezke eta ondotik egin nahi den analisia egitea ahalbideratzen du. Jasotako informazio guztia osatzeko asmoz, atxiloketa garai-ko dokumentuak ere jasotzen ditugu: prentsa artikulak, atxiloketako paper ofizialak, medikuaren agiriak... Azkenik, datuak datu-base batean sartzen ditugu.

Nolako egoera topatu duzue Nafarroan?

Nafarroako egoera zaila da. Tortura eta tratatu txar kasuak badira, baina anitzetan horien inguruko informazio urria dugu eta zaila da pertsona horiekin harremanetan jartzea. Gainera, kontuan izan behar da Nafarroa, bertze herrialdeekin alderatuta, hedadura handiko eremua dela eta biztanleak nahiko sakabanatuak daudela.

Zenbat tortura eta tratatu txar kasu jaso dituzue?

Proiektua oraindik abian denez, ezin da kopuru zehatzez hitz egin, baina 200 bat kasu daudela estimatzen da. Tartean badira eskualdeko kasuak.

Nahiz eta orain egiten ari zareten ikerketatik kanpo egon, Igor Portu eta Mattin Sarasola lesakarren kasua ezagun egin zen. Horren inguruan zer erranen zenuke?

Igor Portu eta Mattin Sarasolaren kasuak aitzinetik EAEn egin zuten proiektuaren barruan aztertu zituzten, beraien atxilotze lekua Gipuzkoan kokatu zelako. Ondorioei dagokionez, Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegiak Portu eta Sarasolak tratatu txarrak eta torturak jasan zituztela baieztatu du. Horren inguruan, deus gutti gehitu daiteke.

Lan gogorra izaten ari da?

Lan gogorra baina emankorra da. Hasiera-hasieratik nekien zein zen proiektu honetan jorratuko nuen gaia eta aitzinera egitea erabaki nuen, zailtarik gabe. Profesional bezala burua hotz izaten ikasi behar da. Tortura kasuetan, bertzeen kontaketa aditzen



Rekarte, erdian, Kriminologiaren Euskal Institutuko Laura Pego eta Leire Padillarekin.



Behetian, ezkerrean, Rekarte, Iruñean eskaini zuten kongresu bateko kideekin.

jakin behar da, ikertzaileak berak bere emozioak gordeaz eta enpatia erakutsiz. Ikertzaileak ezin ditu bere emozioak kontrolik gabe adierazi, honek elkarrizketatuaren haria eten lezakeelako. Kasu horietan, enpatia azaldu behar da, baina nolabaiteko distantzia mantenduz. Kasu anitzetan, aditu dut, isiltasunak direla elkarrizketa baten unerik deserosoenak; nire kasuan, aldiz, zailagoa suertatu zaizkit emozioak kudeatzea. Emozio une horietan, beraiekin bat egin eta negar egiteko gogo sortu izan zaidan arren, argi nuen beraiekin bat eginez gero, saioa bertan behera utzi beharko genuela eta beraien sufrimendua bikoiztu egingen litzatekeela; bertze saio oso bat eskaini beharko genukelako beraien bizipenabirgogoratzeko.

Etorkizunera begira zein asmo dituzu?
Aurten Gizarte Antropologia Graduko laugarren mailarekin amaitu eta hurrengo urtean

EHUk eskaintzen duen Gizarte Antropologiako masterra egitea erabaki dut. Gerora, ikertzaile izaten jarraitu nahiko nuke, batez ere memoria historikoa eta hurbileko memoria lantzen. Era honetan, gure gizarteari ekarpen ttiki bat egin nahiko nioke, iragana argituz eta egindako kalteei aitorpena emanez gizarte justuago bat osatzeko asmoz.

Zerbait gaineratuko zenuke?

Hasteko eskerrak eman nahi nizkieke proiektu honetan parte hartu duten guztiei. Beraieganetik ikasi dut une okerreren ere indarrak atera daitezkeela eta bizipen gogorak xamurtasunez kontatu daitezkeela. Bigarrenik, tortura nahiz tratatu txarren inguruko informazioa duen orori gurekin harremanetan jartzea eskertuko genioke, edozeinen informazioa erabilgarria eta ezinbertzekoa baita. Telefonoa 943 01 83 81 da eta e-posta: torturaproiektua.ivac-krei@ehu.eus.

«**IKERKETAN
BADIRA
ESKUALDEKO KASU
BATZUK**»



Nafarroako Eskolartekoan parte hartu zuten bertsolari gehienak; tartean, eskualdeko Illarregi, Muxika, Mesa, Zapiain eta Telletxea.

Eskolartekoaren finala ekainaren 8an Saran

15 eta 18 urte bitarteko Euskal Herriko hamar bertsolari elkartuko dira Saran egingen den Euskal Herriko Eskolartekoaren bat-bateko finalean. Horien artean izanen dira Xabat Illarregi leitzarra eta Ekhiñe Zapiain beratarra

G. PIKABEA

Bertsozale eta bertsolari dira, errima, doinu eta neurri artean ibiltzea maite duten gazteak, eta zaletasun horren bueltan egiten dute asteroko hitzordua bertso-eskoletan. Eskualdean 15 eta 18 urte bitarteko 12 lagun dira bertso-eskoletan dabiltzanak: Bortzirietan zortzi gazte elkartzen dira, bortz lesakar eta igantziar, etxalar-tar eta beratar bana; Donezteben hiru dira eta Leitza bakarra.

Ez dira, ordea, bertso-eskolako saioetara mugatzen. Oholtza gainerako saltoa ere emana dute batzuk, plazetan edo txapelketetan parte hartuz. Eta bide horretan ezinbertzeko tresnak dira eskolartekoak, Ikastolen Elkartek eta Bertsozale Elkartek elkarlanean 15 eta 18 urte bitarteko gaz-

teentzat prestatzen dituzten bat-bateko txapelketak. Aurten ere hutsik egin gabe antolatu dituzte, herrialdez herrialde lehenbizi, eta finala gero. Hain zuzen, ekainaren 8an boro-bilduko dute aurten 31. edizioa beteko duen txapelketa, aitzineko bi edizioetan bezala Saran egingen den Euskal Herriko Eskolartekoaren bat-bateko finalarekin.

«Bertsolaritzaren bidea urratu nahi duten gaztetxoei horretarako oholtza jartzeko» helburuarekin, 1989an egin zuten lehenbiziko aldiz Euskal

Herriko Eskolartekoa, eta hiru urte lehenagotik Nafarroakoa. Halaxe adierazi dute Euskal Herriko Bertsozale Elkartetik. 30 urte pasatu dira geroztik, eta eskolartekoek izan duten «bide emankorra» nabarmendu dute. Izan ere, urtetik urtera indartzen joan dira. Gaur egun onenen artean dauden bertsolari aunitz dira eskolartekoetan ibilitakoak; tartean, Euskal Herriko txapela irabazi duen nafar bakarra: Xabier Silveira lesakarra. Ez hori bakarrik; lehenbiziko edizio hartan gipuzkoarrak eta bizkai-

**1989AN EGIN ZUTEN
LEHENBIZIKO ALDIZ
EUSKAL HERRIKO
ESKOLARTEKOA**

**HAMAR BERTSOLARI
GAZTE ELKARTUKO
DIRA SARAN EGINEN
DEN FINALEAN**

tarrak baziren ere, gaur egun Euskal Herri osoko gazteek bat egiten duten txapelketa da.

Herrialdez herrialde

Aurtengo edizioari dagokionez, Gipuzkoako eta Nafarroako eskolartekoak apirilean bukatu zituzten. Nafarroakoa, erraterako, Arantzan egin zuten apirilaren 5ean eta 15 bertso-lariren artean hantxe aritu ziren Ane Telletxea (Lesaka), Ekhiñe Zapiain (Bera), Etxahun Azkarraga (Etxalar), Iratxe Muxika (Lesaka), Uxue Mesa (Lesaka) eta Xabat Illarregi (Leitza). Saio eder baten ondotik, Illarregik jantzi zuen txapela eta Zapiain bigarren sailkatu zen. Bi horiek izanen dira finalean Nafarroa ordezkatzeko dutenak. Beraiekin batera, bertze zortzi bertsolari elkartuko dira Saran: Naia Etxeberri Lapurdi, Zuberoa eta Baxenabarreko txapelduna eta Irati Alcantarilla txapeldunordea, Aitor Tatieggi Gipuzkoako txapelduna eta Aner Peritz txapeldunordea eta Aroa Arrizubieta Arabako txapelduna eta Aitor Ugarte txapeldunordea. Lerro hauek idazterakoan, Bizkaiko finalista erabaki gabeak ziren.

Lehia eta besta uztartzuz

Sarako trinketeen jokatzeko da finala, 11:00etan hasita. Gainera, iaz Sarako haurrek egin zuten bezala, aurten Senpereko neska-mutikoak arduratuko dira saioa zabaltzeaz. Bi zati izanen ditu finalak: lehenbiziko zatian banaka zein binaka hiru ariketetan parte hartu beharko dute bertsolari guztiek; puntuazio altuena jasotzen duten sei bertsolariak pasako dira bigarren zatira.

Saioaren ondotik besta giroan segituko dute. 15:00etan Sarako Lur Berri gelan bazkalduko dute, Iparra-Hegoa ekimenak eskainita. Bazkarirako txartelak ekainaren 2ra arte egonen dira salgai (www.bertsosarrerak.eus). Bazkalondoa girotzeko musika izanen dute.

«Txapelketak erakusleio bat dira»

XABAT ILLARREGI MARZOL LEITZAKO BERTSOLARIA

Etxean «betidanik bertsozaleak» izan badira ere, Joanes anaiari «esker» eman zituen bertsotan aurreneko urratsak Xabat Illarregik (Leitza, 2001). Halaxe dio berak. Anaia bezala, lagun batekin, zortzi urte zituela hasi zen bertso-eskolan, Estitxu Arozena irakasle zutela, eta «oso gustura» joaten zela aitortu digu. Astero bertso-eskolara joanez, «bertsoa gure afiziorik handiena» izatera pasatu zen, eta «saioaren batean kantatzeko aukera edukiz gero», ez zuen alferrik galtzen: «beti joan izan gara probatzera eta ongi egitera, nahiz eta ziurrenik ongi egindakoak baino gehiago izan diren akatsak, baina hala ikasten omen da...». Aldi berean, «saio asko» ikusitakoa dela ere adierazi du.



Zale ez ezik, bertsolari ere bada. Eta fin aski moldatzen dela erakusten ari da. Aurten, lehen aldiz, 17 urterekin, Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalean izan da eta «esperientzia ederra» izan dela dio. Ez hori bakarrik. Iaz bezala, Nafarroako Eskolartekoa irabazi du. Arantzako saioan, «gustura» sentitu zela eta «aspaldiko mailarik ederrena» sumatu zuela kontatu digu, eta emakumezkoen presentzia ere nabarmendu du: «Nafarroako finalean jendeak emakumeen hutsunea nabaritu zuen bezala, eskolartekoan emakume asko atera ziren plazara, eta horrek poza ematen du».

Nafarroako Eskolartekoa irabazita, Sarako finalean izanen da leitzarra. «Betiko gisara» ari omen da prestatzen, «prestatuntza berezirik egin gabe», «gustura baino gusturago» dabilen Leitzako bertso-eskolara joanez eta «bertsotan eginez». Txapela «edonork» irabaz dezakeelakoan dago, «lau bertsotan neurtzen baita bigarren fasera pasatu ala ez». Baina txapela Nafarroara gustura ekarri nahiko lukeela aitortu digu. «Bi goaz, ez dut ezinezkotzat ikusten», dio umoretsu. Gainerakoan, txapelketek galdetuta, «mesedegarriak» direla uste du, «esfortzu berezi bat egiten da eta horrek bakoitzaren bertso maila igotzen laguntzen du». Horrez gain, «zorionez edo zoritxarrez, txapelketak erakusleio» bat dira bere irudiko: «jendeak bertan ezagutzen zaitu, eta zoritxarrez, badirudi txapelketan parte hartzen ez baduzu, ez zabiltzala bertsotan».

Helburua gozatzea

Saran bere onena eman eta etorkizunera begira, bertsotan jarraitu; horixe da leitzarrek nahi duena: «lagunartean gozatu, jende berria ezagutu, ahal bada plazaratxo batzuk egin eta mailaz hobetu». Argi duelako «bertsolaritza gozatzeko zerbait dela».

«Eskolartekoa plaza bat da gazteontzat»

EKHIÑE ZAPIAIN ARLEGI BERA KO BERTSOLARIA

«Ttikitatik» datorkio bertsotarako zaletasuna Ekhiñe Zapiaini (Bera, 2002). Ez du atzendua aski ttikia zela «attak bertsoak kantatzen» zizkiola eta gisa horretara, «bertso sortaren bat edo bertze ere ikasi» zituela. Bederatzi urterekin egin zuen hurrengo urratsa: «ikastolan ginela, bertsolaritza lantzeko bi saio egin genituen eta gehiagorako gogoz gelditu nintzen». Hala, Estitxu Arozenaren bitartez, Lesakan bere adinekoen bertso-eskola bazela jakin zuenean, «apuntatzea pentsatu nuen». Ez da damutu egindako hautuaz, «hasieratik bertso-eskolan hagitz gustura» dabilela baitio. Bistakoa da gustukoa duela; gaur egun, astean hiru saio egiten baititu: «Lesakan helduen bertso-eskolan ibiltzen naiz, Beran asteartetan bat-batean aritzeko hiru lagun elkartzen gara

eta nire betiko bertso-eskolan ere segitzen dut». Aitor-tu digunez, «bertze deusek eman ez didana ematen dit bertsolaritzak».



Idatzitik plazara

Bertso-paper lehiaketetan eman zituen lehenbiziko pausoak, eta «inondik inora oholza batera aterako nintzenik» pentsatuko ez bazuen ere, «gero eta gehiago gustatzen zaizkit plazak». Horretarako aukera ederra omen da eskolartekoa. «Bertsolari gazteoi plaza bat ematen

digu. 18 urtez beheitikoentzat nahiko aukera gutti izaten dira bat-batean bertsotan aritzeko eta eskolartekoari esker urtero egin dezakegu». Eskolartekoak bezala, «txapelketak beharrezkoak» iruditzen zaizkio beratarri, bertzeak bertze, «bertsolaritzako bertze alorrek ez bezala biltzen dutelako jendea». Are gehiago, «txapelketek plaza gehiagotarako atea» irekitzeko balio dutela dio. Horixe gertatu zaio berari: «Arantzán, Nafarroako Eskolartekoan kantatuta, saioaren bat edo bertze eskaini dizkidate. Ikusten zaituztenean konturatzen dira hor zaudela eta gauzak egiteko gai zarela».

Bere kasuan, Euskal Herriko Eskolarteko finalean du hurrengo hitzordua, Nafarroakoan bigarren geldituta Sarako finalerako txartela eskuratu baitzuen. Arantzako saioan, «hasieran, gaizki» aritu zela dio, eta «ez nuen uste bigarren fasera pasako nintzenik. Kaskartu nintzen eta dena ilun ikusi nuen». Lehenbiziko faseko azken ariketan lasaitu omen zen, eta «edozein gauza pasatuta ere, ni gustura sentitze-ko moduko saioa egin behar nuela pentsatu nuen». Kontuak kontu, «joan den urteko egun paregabea» gogoan, bigarren aldiz finalean izanen da beratarra. Ia ziurtzat jo du ez duela irabaziko baina «txapela Nafarroara etortzea» gustatuko litzaiokeela onartu digu. Bere kasuan, helburua «gozatzea» eta «ongi pasatzea» izanen da.

Bortzirietako ahozko tradizioa liburuan eta DVDan bildu dute

Ekainaren 11n Lesakan eta ekainaren 12an Beran aurkeztuko dute egindako lana

TTIPI-TTAPA

Bortziria solasean. Ahozko tradizioaren bilduma. Izenburu horixe duen liburua eta DVDa argitaratu ditu Euskokultur Fundazioak, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eta Nafarroako Gobernuak lagunduta.

2000 eta 2001 urteetan egindako ondare inmaterialaren bilketan oinarrituz egin dute lana. Lan horretan 50 lekuko elkarrizketatu zituzten Nora Iriarte Osese eta Maite Lakar Iraizozek Bortzirietako Euskara Mankomunitateak esleitu-



Liburuaren azalean ageri den irudi bat.

tako beka baten bidez. Hainbat gai jorratu zituzten bilketan: garai bateko bizimodua, lanbideak, sinesmenak, mitologia, kontrabandoa, garbiketa, zerrri-hiltzea, elizaren eragina,

eskola, bestak, ohiturak, erre-medioak, ipuinak, bertsoak, kantuak... Hortik abiatuta liburua eta DVDa argitaratu dituzte orain eta garai hartako hainbat argazkirekin osatu dute. Eskualdeko hitzen hiztegitxo bat ere osatu dute.

Liburua aurkezteko bi ekitaldi egingen dituzte: lehenbizikoa Lesakan, ekainaren 11n, Herriko Etxean, eta bigarrena Beran, ekainaren 12an, Beralandetan, biak 18:30ean. Liburuaren egileekin batera, Euskara Mankomunitateko ordezkariak, Maddi Irazokik eta Bortzirietako bertso-eskolako kideek parte hartuko dute.

Aurkezpenetan liburua erosteko aukera izanen da, baita ondotik ere: Beran (Agara, Irene eta Igone), Lesakan (Telletxea eta Xagu), Arantzan (Dena), Igantzin (Bi-bide) eta Etxalarren (plazako denda eta Kultur Etxea). Euskokultur.eus atarian eta Elkar dendetan ere eskuratzen ahalko da.

Kalamuaren eraginari buruzko saioak Etxalarren eta Beran

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuaren *Kalamuak zure garunari eragiten dio* kanpaina oinarrituta, hainbat tailer eskaintzen ari da azken aldian Bortzirietako Gizarte Zerbitzua. Berriki Arantzan eta Lesakan 15-20 urte bitarteko gazteentzako saioak egin dituzte eta ekainaren 7an gauza bera egingen dute Berako Beralandetan, 17:00etan. Horrez gain, nerabeen gurasoentzat gaiaren inguruko informazio-saioa antolatu dute Etxalarren. Azken hau, ekainaren 3an 18:00etan izanen da. Izena emateko 634 22 36 59ra (Whatsappez) edo info@bortziriakgz.eus helbidera idatzi behar da, edo 948 63 50 36ra deitu.

Zure beharretara egokitzen gara

948 630 537 mueblesamets.com

Euskaraldiaren inguruko bilera irekia ekainaren 6an

Bortzirietako herritarrentzako hitzordua Beralandetan egingen dute

TTIPI-TTAPA

2019an zer? galdera abiapuntutzat hartuta, Euskaraldiaren inguruko bilera irekia egingen da ekainaren 6an, Beralandetan, 19:00etan. Bortz herrietako herritarrentzako deitu dute bilera eta bertzeak bertze, Nafarroako Euskaraldiko di-

namizatzaleak hartuko du hitza. 2020ko udazkenean egitekoa den bigarren Euskaraldiaren inguruko xehetasunak partekatuko dituzte eta gisa berean, hori behar bezala prestatzeko egin beharreko hainbat lanez ariko dira ekainaren 6ko hitzorduan.

Ekainaren 8an Dantzari Ttiki Eguna, Ibardingo Igoera eta ekoizleen merkatua

TTIPI-TTAPA

Hiru hitzordu egun berean. Halaxe izanen da ekainaren 8an. Alde batetik, XXV. aldiz Dantzari Ttiki Eguna antolatu du Gure Txokoa Elkartek. Herriko dantzari gaztetxoekin batera, Ibarrako Alur, Tolosa-ko Udaberri, Legazpiko Korosti eta Urnietako Aurrera Gure Ametsa dantza-taldetako dantzariak elkartuko dira.

Bertzalde, Ricardo Baroja eskolan Baztan-Bidasoko ekoizleen merkatua egingen dute, 10:00etatik 13:30era. Eta aldi berean, Ziharka Sportek

antolatuta, IV. Ibardingo Igoera ere egingen da egun berean. Mendiko junior mailako Nafarroako txapelketa izanen da. 12:30ean aterako dira lehen parte-hartzaileak baina antolakuntzatik jakinarazi dutenez, 11:30ean errepidea moztuko dute.

Bertsopaper lehiaketa

Ortzirale honetan, maiatzak 31, Baztan-Bidasoko XXXII. Bertsopaper Lehiaketako sariak banatuko dituzte. 18:00etan Kultur Etxean egingen dute sari banaketa.



UTZITAKO ARGAZKIA

Toki Onakoak matematika olinpiadan

Iker Zelaieta Lazkano (eskuinetik bigarrena), Toki Onako ikasleak bigarren postua lortu zuen maiatzaren 11n Garesen egin zen Nafarroako Matematika Olinpiadan. Berekin batera Joanes Ariztimuño, Naiara Sein eta Ane Telletxea joan ziren. Ekainean Jaenen jokatu den finalean izanen da Zelaieta.



UTZITAKO ARGAZKIA

Madrilgo Unibertsitatekoak Beralandetan

Madrilgo Universidad Complutense (UCM) Unibertsitateko Bioetika Masterreko hamargarren promozioako hamaikagarren bilkura Beralandetan egin zuten maiatzaren 11n, sortzez Berakoa den Maite Alzugaray doktorearen eskutik. Aitor Elexpuru kultur zinegotziak egin zien harrera.

Alberto RETEGI
abokatua
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

K SAT
TELEKOMUNIKAZIOAK
ANDONI LASAGA APEZTEGUIA
T. 637 40 86 40 · 31780 BERA
andonimatzako@gmail.com

LABE ZAR
Astelehenetik
ortziralerara:
07:15etik
aitzinerara
Larunbata
eta igandea:
08:00etatik
aitzinerara
948 631 076 · BERA

MARITX
· INGENIARITZA ELEKTRIKOA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK
T. (0034) 636 617 450
· BOLETIN INDUSTRIA
· INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Legia, 23 - BERA

JAIONE - COXOTEGIA
Etxean
egindako
produktuak
948 630 786 · Altzate, 21 · BERA

FRUTAS Y VERDURAS
ERRANDONEA, s.l.
FRUTAS Y VERDURAS
BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOA: 633 480 563
Bidasoa, 76 - atea 21-22 · BERA

Beti Gazteren Asteak hainbat ekitaldi izanen ditu

Ortzegunean hasiko diren ekitaldiak igandeko VII. margo azkarreko lehiaketarekin borobilduko dituzte

AITOR AROTZENA

Ekitaldiz betea ospatzen hasiak dira Beti Gazteren Astea. Joan den asteburuko solasaldia eta argazki rallyaren ondotik, aste-buru honetan egingen dira ekitaldi gehienak. Maiatzaren 30ean, ortzegunean 18:30ean, *Nutrizioa kirolan* solasaldia antolatu dute udalaren erabilera anitzeko aretoan.

Maiatzaren 31n, ortziralean 17:30ean *Ezagutu dezagun Lesaka* lehiaketako sariak banatuko dituzte egoitzan eta 19:30ean Beti Gazteko Lerro Dantza Taldeak emanaldia eskainiko du Plaza Zaharrean.

Ekainaren 1ean, larunbatean 08:00etan mendi irteera abiatuko da plazatik eta hamaiketako izanen dute. 09:30ean Beti Gazte Lasterka taldearen irteera, ekainaren 15ean antolatu duten lehen mendi

lasterketaren ibilbidea ezagutzeko (lasterketari buruzko informazio gehiago, kirol orrialdeetan). 11:00etan Beti Gazteko emakumeek ligako azken partida jokatu dute Mastegin. 12:00etan herri-kirol desafioa izanen dute Plaza Zaharrean eta poteo musikatua Elutxa txarangarekin. 14:00etan bazkaria izanen dute Koxkontan. Bazkarirako txartelak 30 eurotan salgai daude maiatzaren 30era arte Koxkilla, Zialdo, Arrano eta Etxeberrira ostatueta.

Ekainaren 2an, igandean, azkenik, Elias Garralda zenaren omenez VII. Margo lehiaketa azkarra egingen dute goizean eta sari banaketa 18:00etan. Lehenbiziko saria 600 eurokoa izanen da, bigarrena 350 eurokoa eta 150 euro lesakar onenarentzat.



OSKAR TXOPERENA

Bortzirietako Abesbatzen IV. Topaketa

Balorazio baikorra egin du Giltzarri Abesbatzak maiatzaren 11n Harriondoan egindako abesbatza topaketaz. Etxeko abesbatzaz gain, Jacako Orfeoak eta Angeluko Vocanti Abesbatzak bikain kantatu zuten. Jendearen erantzuna izan da, halere, Giltzarrik gehien azpimarratu nahi izan duena.

Jasone Telletxeren kartelak iragarriko ditu aurtengo Sanferminak

TTIPI-TTAPA

Sanferminak iragarriko dituen kartela eta besten programa-ko azala eta kontrazalean joanen diren irudiak aukeratu dituzte. Karteletan, Jasone Telletxea Maritxalarren lan bat saritu dute, *Uztailak 7 (I)* goiburua daramana. Zazpi lan aurkeztu dituzte lehiaketara. Programaren azalerako lehiaketara ere zazpi lan aurkeztu dituzte eta hemen Maider Etxandi Almandozen lan bat aukeratu dute, *Puntun* ize-nekoa.

Bakoitzarengatik, 250na euroko bonoa eskuratuko dute saritzat, herriko komertzio, zerbitzu edo ostatueta erabiltzeko.

Herrian Lehen Hezkuntza ikasten duten ikasleei zuzendutako programaren kontrazal lehiaketara 145 lan aurkeztu dituzte eta horien artean, Uxue Ubiria Garciaren *Lesakako erraldoiak* aukeratu dute irabazle. Honek, 100 euroko bonoa izanen du saritzat, herriko dendetan eskolako materiala erosten erabiltzeko, bere lana programaren gibleko azalean argitaratua ikustez gain.

Aste Santu inguruan Turismo Bulegoan egindako erakusketan herritarrek emandako bozkekin aukeratu dira aurtengo Sanferminetako irudi irabazleak.



Saritutako kartela eta azalak.

BEKO

LOREAK ETA LANDAREAK

Frain Auzoa · LESAKA
T. 948 637 826

IRU-BIDE

OSTATU · JATETXEA

Arratzubi Kalea 3
31770 LESAKA
T. 948 63 71 27

Denak Bat

Hemen erabili

kattagorria

LESAKA
948 627 514
www.kattagorria.com

KOXKONTA

JATETXEA

Egunero irekia

+ Eguneko menua
+ Menu berezia
+ Karta
+ Banketeak

Otsango, 1 - Lesaka - 948627519 / 948627503

XXVII. Gasna eta artisau feria prest du Altxata elkarteak

Bezperan III. Artzain Zakur lehiaketa ospatuko da eta herriko dantzariak saioa eskainiko dute

IRUNE ELIZAGOIEN

Ekainaren 1ean, larunbatarekin, 16:30ean Etxalarko III. Artzain Zakur lehiaketa ospatuko da Errota pareko zelaian. Ondotik, 19:00etan herriko dantzariak saioa eskainiko dute frontoian eta egunari akabera emateko Hara taldeak rock kontzertua eskainiko du Herriko Ostatuan gaueko hamaitetan.

Igandean, XXVII. Gasna lehiaketa jokatu dute eta bertan parte hartu nahi dutenek 10:00etatik 11:00etara eramane beharko dituzte ardi

gasnak frontoira. 10:30etik 14:00etara eskulangileen erakusketa eta salmenta postuak jarriko dituzte eta giroa alaituz Etxalarko trikitilariak ariko dira. Eguerdian gasna lehiaketako sari banaketa egingen dute eta Bankako kantariak girotuta bazkaria.

Herri Haitadan hirugarren

Maiatzaren 19an Ainhoan ospatu zen sei herrien arteko egun-pasa. Etxalartik 45 lagun baino gehiago joan ziren eta hirugarren gelditu ziren sailkapenean.



ITSASO ELIZAGOIEN

Udaberriko Besta Larraburuaren eskutik

Larraburua elkarteak antolatuta, lehenengo aldiz muxikoak dantzatzeko aukera izan zen frontoian maiatzaren 19an. Eguraldi txarra bazen ere jende aunitz hurbildu zen. Eguerdian 50 lagun inguruk bazkaria egin zuten Larraburuan eta ondotik Jon Abrilen *Neskatoak* dokumentala ikusi zuten.



ITSASO ELIZAGOIEN

Imanol Vicente Gaztela-Leongo autocros txapelketan

Emaizta onak lortzen ari da Imanol autocross txapelketetan. Azkena, maiatzaren 11n izan zuen car cross modalitatean eta lehiatu ziren 24 kotoeen artean bigarren postua eskuratu zuen. Orain, sailkapen orokorrean lehen postuan dago, azken karreraren faltan.



Imanol Vicente podiumean.

Herritarrak ETB1eko Autentikoak saioan

ETB 1eko *Autentikoak* saioan publiko modura parte hartu dute Etxalarko 25 lagunek. Maiatzaren 16an joan ziren Miramonera eta saioa zuzenean emititu zen 22:40ean. Errealako bi jokalarik (Mariasun Quiñones eta Nerea Eizagirre) eta Elena Irureta eta Ane Gabarain aktoreak izan ziren saioan.

LARRETXEAK EGVRRAK

Zuhaitzak erosi, bota eta ateri
Piketeak eta sutarako egurra

Pio Baroja, 3 | Obenea | Bera | T. 617 981 427

TXIMISTINDAR

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Andueza e Iriarte, SL

Zalain Industrialdea, 42B-4.pab BERA

T. 948 631 452 | 639 608 034 | 639 125 046

KAGU

LIBURUDENDA

Tel. / Fax 948 638 232

Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)

31770 LESAKA

- PAKETEAK JASOTZEKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBuk EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK



62 txirrindularik parte hartu zuten. O. TXOPERENA

Iraitz Etxebarria izan da azkarrena ibilbide lohitudan

Zumai Txoperenak hamabigarren denborarik hoberena egin eta Nafarroako txapelkun da 23 urtez azpikoetan

TTAPI-TTAPA

Bigarren urtez jarraian, eguraldi kaxkarrarekin jokatu zuten Xabi Telletxearen omenezko jaitsiera. Euria gehitu zitzaion berez hagitx korapilatsua izaten den probaten antolaketari, baina, bikaintasunez egin zuen lana Biltoki Elkarteak eta ustekabeei ez zien zirrikiturik utzi. 62 txirrindularik hartu zuten dortsala kategoria batean edo bertzean.

Iraitz Etxebarria bizkaitarrak, azkeneko urteetako nagusitasunari eutsi zion eta bera izan zen irabazlea. Gainera, bera

izan zen hiru minutuko lan-gatik jaistea lortu zuen bakarra. Ondotik Xabi Urdanpilleta gipuzkoarra sailkatu zen, 8 segundo beranduago, eta Jose Luis Diez kantabriarrak osatu zuen podiuma, irabazletik 10 segundora ailegatuta. Aipamen berezia merezi du Zumai Txoperena Agertzeberrikoak: hamabigarren denborarik hoberena egin zuen proban, bigarrena izan zen 23 urtez azpikoetan eta, Nafarroako txapelketa irabazteaz gain, lehenbiziko postuan dago orain Euskadiko Openeko sailkapenean. Bada zerbait.

Simonbaitako zaborteia ixteko aukera aztertzen eta irtenbide bila ari da Udala

TTAPI-TTAPA

Udala Simonbaitako erreka zaborteiaren erabilerarekin kezkatuta dago. Etxe partikularretako zabor organiko larria botatzeko lekua ireki nahi izan zuen eta edukiontzia ere paratu zuen etxeko lan ttikieta-kondarrak botatzeko. Kon-

turatu dira zaborteia profesionalak ere erabiltzen dutela eta organikoa ez dena nahasia botatzen dela. Gainera, parajea ez da komunala eta jabea kezkatuta dago erabilpen horren ondorioekin. Zaborteia ixteko aukera aztertzen ari dira eta irtenbide bat bilatzen.



12:00etan herriko karriketan barna ibiliko dira. O. TXOPERENA

Kankailuen topaketa ekainaren 2an izanen dute

TTAPI-TTAPA

Ekainaren 2rako, Kankailu Topaketa antolatu du herriko konpartsak. Hogei urte dira herrian kankailuak dantzatzen hasi zirela, bertakoak alegia. Urteurrena ospatzeko hiru talde ibiliko dira herriko karriketan: Lapurdiko Bastidakoa, Legazpikoa eta bertakoa. Goi-

zako 10:00ak aldera bildu eta hasiko dituzte prestaketak. Gosalduta ondorengo, 12:00etan, itzulitxka egingen dute herrian barrena, zenbait lekutan gelditu eta dantzatuz. 13:00etan dantzatuko dituzte kankailuak azkeneko plazan eta segidan Biltoki Elkartearen izanen dute bazkaria.

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE
Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

PRIM, c.b.
Fisioterapia Zentroa
Itzea 1, behea • T./F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN

gaueko konfort-kuxina

Centro Prim regina tolosaecheapare

Mikel Karrera Lannemezanera hurbildu dute

Lau hilabetez bisitei uko egin die Euskal Herritik hurbilago dagoen espetxera eramateko bere eskubidea aldarrikatzeko

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 21az geroztik Euskal Herritik 280 kilometrotara dagoen Lannemezango espetxean dago Mikel Karrera Sarobe herriko preso.

Paris ondoan dagoen Reau Sud Franciliengo espetxean egon da orain arte, etxetik ia mila kilometrotara. Bere eskubidea, ordea, Euskal Herritik hurbilen dagoen Frantziako espetxean egotea zen, Lannemezanen eta eskubide hori aldarrikatzeko lau hilabete pasatu ditu protestan, lagun eta senideen bisitari uko



Mikel Karrera 2010ean atxilotu zuten.

eginez. Azkenean, joan den asteartean hurbildu zuten bertz 13 euskal preso dauden kartzelara.

Senide eta lagunak pozik hartu dute berria.

Xorroxin Irrati Ibiltaria ekainaren 10etik 14ra

Ekainaren 10etik 14ra irratiko kazetari, esatari eta teknikari bilakatuko dira eskolako lagunak Xorroxin Irratiak ikastetxe ikastetxe eskaintzen duen Xorroxin Irrati Ibiltaria egitasmoari esker. Eskolako irratia aditzeko frekuentzia 106.5 izanen da.

24. Arantza Rock abuztuaren 24an egingen da

Jakina da dagoeneko, abuztuaren 24an, Arantza Rock jaialdiaren 24. edizioan nola-koa izanen den egitaraua. Ilunabarrean Elektrozarata elektrotzarangarekin girotuko dute herria eta 23:00tik aitzinera Goflow, Nicotina, Herdoil eta Iluntzean taldeak ariko dira.

Bestetako egitarauaren azalerako eta kontrazalerako hirugarren lehiaketa

NEREA ALTZURI

Udaleko Kultura Batzordeak, hirugarren aldiz, bestetako egitarauaren azalerako eta kontrazalerako lehiaketa antolatu du. Herriko eskolan ari diren 6 urtetik 14 urte bitarteko ikasleek (LHko 1.mailatik DBHko 2.mailara) partehartzen ahal dute eta bakoitzak nahi adinalan aurkeztu ahal izanen ditu. Lanak koloretan izan behar dute eta euskarri gogor batean aurkeztu beharko dira, hau da, kartulinar edo paper lodian eta A4 formatuan. Tes-tuari dagokionez, *Arantzako*

bestak 2019. Abuztuaren 14tik 17ra testua agertu behar da nahitaez lanean.

Lanak gutun-azal batean sartuta aurkeztu beharko dira Herriko Etxean. Sobre horrek eta lanak berak izenburu bat izanen dute, sobrean adierazi beharko dena. Gutun-azal horren barrenean bertze tiki-kiago bat sartu beharko da, itxia, eta hor lana egin duen haur edo gaztetxoaren izen abizenak, helbidea eta telefonoa idatziz beharko dira. Ekainaren 28ko 13:00ak arte aurkeztu ahal dira lanak.



MARKEL JORAJURIA

Boluntarioei esker onez

Mendi lasterketan lanean aritu zirenei esker onez, afaria eman zien Ekaitza Elkartek maiatzaren 11n. 50 bat lagun elkartu ziren elkartean, eta giro ederrean afaldu zuten. Ondotik, Aterpean EH Sukarrak eskainitako kontzertuaz gozatzeko aukera izan zuten.



Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak

Etxetresnen salmenta, instalazioa
eta etxez etxeko konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak



ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika · BERA
zubiondojatetxea.com



Cristaleria BIDASOA
Tel. 943 61 30 63
Gipuzkoa etorb., 26 - 20302 IRUN info@cristaleriabidasoa.com





Nafarroako Kirol Jokoetako BTT karreretan ari diren gaztetxoak. UTZITAKO ARGAZKIA

BTT lasterketan ari dira txirrindulari gaztetxoak

Nafarroako Kirol Jokoen baitan ari dira Nafarroa osoan eta bertze taldetxo batek Lesakako topaketan ere parte hartu zuen

MAIDER PETRIRENA

Nafarroako Kirol jokoei antolatzen dituen BTT karreretan herriko gaztetxo kuadrilla ederra parte hartzen ari da. Fitero, Faltzes, bi aldiz Aiegin eta Ilunberrin egon dira. Karrera hauek ekaina bukaera arte izanen dituzte eta irailean azkena izanen dute. Hauek ari dira parte hartzen: Ander eta

Oihan Apeztegia Fernandez, Aimar eta Markel Agesta Hernandorena, Ander eta Unax Larraburu Hernandorena, Aitor Igoa Arretxea, Hodei Gastesi Etxebeste eta Mikel Bastante Rodriguez. Maiatzaren 11n Lesakan egin zen Herriarteko txirrindulari topaketako lehen egunean ere parte hartu zuen kuadrilla batek.



UTZITAKO ARGAZKIA

Koldo Herrera irabazle Urretxun

Koldo Herrera Urroz herriko txirrindulari gazteak Euskadiko openeko karrera batean parte hartu zuen maiatzaren 11n Urretxun. Lehen postua lortu zuen mendi bizikleta lasterketan. Garaipen honek animoak emanen dizkio gelditzen zaizkion karreretarako.



Lesakan egin zen herriarteko txirrindulari gazteen topaketan ere izan ziren.



UTZITAKO ARGAZKIA

250 euroko balea Josune Agirrarentzat

Baztan-Bidasoaldeko merkatariak biltzen dituen Denok Bat Federazioaren Denok bat giltzariak 5 urte bete dituela eta 5.000 euroko erosketa-baleak zozketatu dituzte. Aipatuko dugu 250 euroko bale bat herrira etorri zaigula, hain zuzen ere, Josune Agirre Maritorea izan da irabazlea. Zorionak.



MAIDER PETRIRENA

Bailableak Baztango Dantzarien eskutik

Baztango Dantzariak antolatuta herrian bailableak ikusteko eta parte hartzeko aukera izan da maiatzaren 19an. Horrez gain herriko ttiki eta koxkorren taldeek beraien emanaldia ere eskaini zuten. Eskerrik asko antolakuntza, musikari eta parte-hartzaile guztiei.



Eskubaloï partiden atsedenaldian dantzariak emanaldia eskainiko dute.

Erreka Kirol Elkartearen eguna ekainaren 1ean

Bezperan eskubaloï partidak, puzgarriak eta mus txapelketa izanen dituzte

MARGA ERDOZAIN

Erreka Kirol Elkartek, Udaren eta Gazte Burrunbaren laguntzaz, denboraldia behar bezala akitzeko, urteko besta nagusia antolatu du. Ekainaren 1ean, heldu den larunbatean, zehaztu dute hitzordua.

Bezperatik mugimendua

Bezperatik, hau da, maiatzaren 31tik, mugimendua nabariturikoa da herrian. 18:00etan umeak eskubaloian ariko dira eta 20:00etan seniorrei harrera egingen diete udaletxean, lortutako *dobletearen* lorpena eskertzeko. Bien bitartean, 17:00etatik 20:00etara puzgarriak izanen dira, kiroldegian.

22:00etan Santa Luzia Plazan mus txapelketa handia jokatuko dute (irabazleentzat 300 euro eta bigarrenentzat 100 euro). Izena emateko 10 euro ordaindu beharko dituzte bikoteko.

Larunbatean egun osoko egitaraua

Ekainaren 1a, larunbata, izanen da egun handia. 08:30ean Malerrekan barna bizikleta-bira izanen dute (56 kilome-

trokoa eta bukaerank merezitako aperitiboa izanen duena). 09:30etik aitzinera kiroldegian gazteak eskubaloian ariko dira (alebinak, kadeteak eta infantilak); eta eguerdian, 12:00etan, Errekako Judo Eskolako erakustaldia izanen dute. Goizean pilota partidak izanen dituzte frontoian.

Arratsaldean, 16:30ean, seniorren arteko eskubaloï partida izanen dute kiroldegian eta 17:30ean Final Four lehiaketa (Erreka A - Erreka B - Berteranoak - RK Balonpie). Atsedendian, ikusleek Erreka dantza-taldeak eskainiko duen emanaldiaz gozatu ahal izanen dute. Luchon-Doneztebe egiten duten txirrindulariei, ailegatzen diren orduaren arabera, kiroldegian edo Santa Luzia plazan egingen diete harrera.

19:30 aldera trikipoteoa egingen dute kiroldegitik eta eguna akitzeko 21:00etan herri-afarian bilduko dira Santa Luzia Plazan. Afalondoan, Oharkabe taldearen eskutik, dantzarako tarte izanen dute. Sorpresak ere izanen direla jakinarazi dute.



Futbol taldearen eguna ekainaren 15erako antolatu dute. ARTXIBOKOA

Doneztebe Futbol Taldearen eguna ekainaren 15ean

MARGA ERDOZAIN

Agenda bete ekitaldi izanen dute ekainean. Hilaren 3an erreka garbiketa izanen dute. Mendaurre Institutuko ikasle eta boluntarioek Galbaraialde, Ezpelura eta Ezkurra erreka garbituko dituzte. Ekimen hori Nafarroako Gobernuak Irekibai proiektuak bultzatutako

Ibaietako Boluntariotza programaren barrenean kokatu behar da. Ekainaren 8an *Nafardeath* filma izanen da ikusgai, 19:30ean zineman. Ekainaren 15ean Doneztebe Futbol Taldeak bere eguna ospatuko du eta biharamunean Errekak antolatutako Herri Krosa izanen dute.

Udalak udarako kontratazioa ireki du

Udalak, uztaila eta abuzturako, turismo bulegorako teknikari bat eta ludotekarako monitorea bat kontratatuko ditu. Igerilekuko ostatua hartzeko deialdia ere egin du. Baldintzak, beharrezko dokumentazioa eta azterketa-egunak webgunean ikusgai daude.



Turismo-teknikaria behar dute.

Eurovelo proiekturako inkestagile bila

Nafarroako Turismo Zerbitzuak bi pertsona kontratatu nahi ditu Eurovelo egiten duten txirrindulariei galdetegia egiteko. Inkestak ekainetik urrira bitarte egingen dira, 26 egunez eta egunean 5 orduz. Argibideak: a.rivas@meridiano-zero.net edo 617 33 03 80.

Familiaren eguna ekainaren 8an eskolan

Guraso elkartearen eskutik, familiaren eguna ospatuko dute ekainaren 8an. 13:30ean bilduko dira eta bazkaria izanen dute (txartelak hilaren 3a arte eskolako idazkaritzan). Ondotik, 14:00etatik 18:00etara haurrendako jokoak izanen dituzte eta akitzeko musika.

Adimen emozionala langai ekainaren 15ean eta 16an

Donna Apellanizek, adimen emozionalean aditua den terapeutak, eskainiko du ikastaroa

ARKAITZ MINDEGIA

Adimen emozionalari buruzko ikastaroa antolatuko du Abarrun aterpeak. Gurasoei bideraturiko saioak izanen dira eta ekainaren 15ean eta 16an eskainiko dira. Larunbatean goizez eta arratsaldean (10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara) bilduko dira; igandean, aldiz, goizez bakarrik.

Tailer teoriko-praktiko horien helburua seme-alaben emozioak ulertzen ikastea eta horiek kudeatzeko gakoak eskuratzea da. Horretarako, emozioen atzean dauden beha-

rrak identifikatzeko eta hurrei hoberena emateko gakoak jorratuko dituzte. Donna Apellanizek, magisteritzan diplomatuak eta adimen emozionalean aditua den terapeuta sistemikoak, eskainiko du ikastaroa.

Interesa dutenek infoeducandolaemocion.com helbidera idatzi edo 699 81 31 52 telefonora deituz izena eman dezakete. Ikastaroa, larunbateko afaria, lo egiteko toki eta igandeko gosaria eta bazkaria 180 euro ordaindu beharko dituzte.

Bizikleta gainean trebe dabil Javier Sein

Azken asteburuetan Seinek emaitza onak lortu ditu. Rural Kutxakoan Aiegin 3. froga kas-karra egin ondok Deikaztelun lasterketa irabaztea lortu eta lidergoa berreskuratu zuen. Bilbon Green Serieseko 3. karrera ere irabazi zuen. Zorionak!



Deikaztelun irabazle. SAIOLA ZELAIETA

Ekainaren 15ean Zegamara joanen dira joaldunak

Joaldunak azken asteburuetan han eta hemen ibili dira: Senpereko lakuaren inguruan Herri Urratsen, Ezkurran Marlerreka Egunean... Aurtizko joaldunak ekainaren 9an urteroko zitara joanen dira, Beasainera; eta hilaren 15ean Zegaman bilduko dira.

Herriko argiteria aldatu dute Led bonbillak jarritz

Iturenen lehenagotik eta orain Aurtizen kaleko farolen argiak aldatu dituzte Led bonbillak jarritz. Berotza enpresak egin ditu lanak. Horri esker, kaleetako argitasuna orain haundiagoa da, zuriagoa, eta argi-kontsumoan ere nabaritu da egin den aldaketa.

Agorreta musika eskolako matrikula epea zabalik ekainaren 14ra arte

MARGA ERDOZAIN

2019-20 ikasturterako ohiko matrikulazio epea zabaldu du Udalak. Ikasle arituak ekainaren 1era arte matrikulatzen ahal dira, berriek, berriz, ekainaren 14ra arte epea zabalik izanen dute. Eskaintzari dagokionez: alde batetik, instrumentuak ikasteko aukera izanen da: gitarra, guitarra elektrikoa, perkusioa, pianoa, trikitixa, akordeoia eta txistua. Bertze aldetik, haur abesbartzarako ere izena ematen ahal dute. Kantatzea gustuko duten haur edo gazte zuzendutako

eskaintza da. Hamabi urte edo gehiago dutenek solfeorik edo hizkuntza musikalki gabe instrumentua jotzen ikasteko aukera ere badute. Eta akitzeko, instrumentu bat jo edo berreskuratu nahi duenak ere izena eman dezake.

Informazio gehiago

Eskaintzari buruzko argibideak eskuratzeko 636 66 97 50 telefonora deitu, bertara jo edo esmusidoneztebe@gmail.com helbidera idatzi beharko da. Irailaren 2tik 13ra epe berezia irekiko dute.



UTZITAKOA

Laxoa Eguna ospatu dute herrian

Gobernuak laxoa pilota modalitatea kultura ondasuntzat jo zuen maiatzaren 8an. Hori ospatzeko Laxoa Elkartek bere eguna ospatu zuen maiatzaren 8an. Laxoa txapelketako partidariak ez zen jokatu euriagatik, baina ekitaldi ofiziala egin zuten eta ondok mokadutxo dastatu eta panelak ikusi zituzten.

Koloneko minbizia garaiz detektatzeko programa eskualdean

MARGA ERDOZAIN

Nafarroan bizi diren 50-69 urte arteko gizon-emakume asintomatikoetatzat da. Etxe guztietara ailegatuko da gonbidapen pertsonalizatua eta lagina hartzeko materiala. Test hori kaketan odolik ote den ikusteko egin behar da. Lagi-

na jasota, osasun-etxean utzi beharko da, ahalik eta lasterren. Egun batzuen buruan jasoko dute emaitza. Positibo emanez gero, kolonoskopia egin beharko dute. Diagnostiko eta tratamendu goiztiarrak sendatzeko zein kontrolatzeko aukerak errazten ditu.



Bazkalondoan bertsoak aditzeko aukera izanen dute. ARTXIBOKOA

Oritzako Eguna ekainaren 8an ospatuko dute

Musikak eta Alazne Untxalo, Iker Gorosterrazu eta Aitor Larretaren bertsoek girotuko dute mahai-ingurua

FERMIN ETXEKOLONEA

Urtero bezala, Oritzako Festa ospatuko dute ekainean. Hilaren 8an, bigarren larunbatean, zehaztu dute hitzordua eta herritarrak parte hartzera animatu dituzte.

Egitaraia

Goizean, 08:00 aldera, muntaketa-lanetan hasiko dira eta hortik aitzirena bazkaria prestatzeari ekinen diote. 13:00etan festari hasiera emateko txupinazoa botako dute eta 14:00 inguruan mahaiaren bueltan bilduko dira, bazkaltzeko. Bazkarian kantu eta dantza-

rako aukerarik ez dute faltako, musika lagun izanen baitute. Era berean, Alazne Untxaloren, Iker Gorosterrazuren eta Aitor Larretaren eskutik, bertsoez gozatzeko aukera izanen dute. Arratsaldea bertan pasatuko dute eta nahi duenak merienda-afari gisa mokadutxoren bat dastatzeko aukera ere izanen du.

Izen-ematea

Izena emateko Herriko Ostatura, okindegira eta Errandoneara jo behar da. Helduek 25 euro eta haurrek 12 ordaindu beharko dituzte.



MATTIN LARRALDE

Mendi-itzulia egin dute Elgorriagan

Maiatzaren 19ko mendi-itzulia eurrutan egin zuten elgorriagarrek. Eguraldia tarteko, ibilbidea moztu behar izan zuten. Bostorratzetik herrira jaistea erabaki zuten, Ameztaldea utziz eta ibilbide erditsua eginez. Dena dela, lagun-talde ederra bildu zen eta ederki pasatu zuten.

Trinitate Eguna ekainaren 16an iturenen

Ekainaren 16an, igandean. Trinitate Eguna ospatuko dute Iturenen. Ohiturari eutsiz, herritarrak eta ingurukoak Mendaurrera igoko dira. Askok lagunarte edo familian bazkalduko dute eta arratsaldean dantzaldiaz gozatu ahal izanen dute.



Irailean Elgorriagako presa botako dute

Elgorriagarrek irailean presa botako dutela jakin dute, urak hartzen duen eremua delako. Herritarrek «pena handia» hartu dute, bertan bainutxoak hartzeko biltzen baitziren. Halere, ur bildua utziko dutela eta ingurua moldatuko dutela jakinarazi dute.



TINTALANAK
RAMUNTZO ERRANDONEA

Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe!

Pintura-lanak kanpokoak eta barnekoak
Zolak, zatiketak eta beste lan txikiak jartzea
Denden diseinua eta dekorazioa

📍 Zugarramurdi
☎ (+33) 06 03 347 076
✉ tintalanak@gmail.com
🌐 www.tintalanak.com

ola
SAGARDOTEGIA
www.olasagardotegia.eus

- 🍎 Bertako sagarrarekin egindako sagardoa
- 🍎 250 lagun eserita
- 🍎 Klimatizaturia
- 🍎 Sagardotegiko menua

TXOTX GARAIA IREKIA

102 Meaka auzoa • 20304 IRUN • T.943 623 130

Lizun
GAZTANDEGIA

IDIAZABAL

Sunbilla • Tel: 948 450 862



85 urtetik gorako Ezkurrako seme-alabak omendu zituzten Malerreka Egunean. JAIONE ZABALO

Eguraldi txarrari aurpegi ona Malerreka Egunean

85 urtetik gorako Ezkurrako bizilagunak omendu zituzten eta heldu den urtean Donamariak antolatuko du ospakizuna

JAIONE ZABALO EZKURRA

Euria ez zen oztopo izan maiatzaren 18an Ezkurran Malerreka Eguna ospatzeko. Jende asko ibili zen egun osoan prestatuak zituzten ekitaldie-

tan. Heldu den urtean Donamarian egingen da Malerreka Eguna.

Eguna hasteko, bortz zubietarrek eta Ezkurrako bi lagunek antolatutako mendi martxa

egin zuten. 09:00 aldera herrietako ordezkariak gosaltzeko elkartu ziren eta Isabel Elizalde Landa Garapeneko kontseilaria ere han izan zen.

10:30ean eman zioten ofizialki hasiera bestari, 85 urtetik gorako Ezkurrako herritarrek omenduz, aurreku eta guzti. 11:00etan artisau postuak ireki zituzten eta dantzariak, buruhaundiek, joaldunek eta Ainhoa Galainek alaitu zuten goiza. Eguerdian, eratsundarrek, zubietarrek, elgorriagarrek eta ezkurarrek prestatutako paella dastatzeko aukera izan zen eta arratsaldean, muxikoak

dantzatzen ibili ziren. Haurrek jokoak ere izan zituzten eta txokolate beroa ere bai meriendatzeko. Herri-herri egindako mus txapelketetatik sailkatutako 16 bikoteek finala ere jokatu zuten eta txapela etxean gelditu zen, Ezkurrako Cristobal Zabaleta eta Joseba Telletxea nagusitu baitziren. Tenore berean, Beintza-Labaiengoek aizkora apus-tua eskaini zuten.

Dantzaldia ere izan zuten eta ondotik, lekukoa pasatzeko ekitaldia egin zuten. Donamariak hartu zuen lekukoa eta hala, beraiek antolatuko dute heldu den urtean Malerreka Eguna. Segidan, Barranka jatetxean egindako herri-afarian 50 bat lagun elkartu ziren eta ondotik dantzaldia izan zuten.

Aipatu behar da boleto sarrituen jabeak oraindik ez direla atera. Lehenbiziko saria 2.105 zenbakiari egokitu zaio, bigarrena 2.771 zenbakiari eta hirugarrena 2.690 zenbakiari.

Ezkurrako Udalak eskerrak eman nahi izan dizkie Malerreka Egunean lagundu duten guztiei, «zoragarria izan da herritarrek eta lagunak hartu duten konpromisoa eta eskaini duten laguntza».



UTZITAKO ARGAZKIA

Beintza-Labaien Xorroxin Irratian

Aurten ere *Xorroxin Irrati ibiltaria* programan parte hartu dute Beintza-Labaiengo eskolako ikasle eta irakasleek. Beraiek prestatu, egin eta uhinen bidez hedatutako irratsaioak Beintza eta Labaiengo etxeetan aditu ahal izan dituzte eta aski gustura ibili dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

Oizko emakumeen bilkura

Joan den maiatzaren 1ean, langileon egunean, urtero bezala elkartu ziren Oizko alabak. Garai zaharrak gogoratu zituzten gaurko egunetan, mahai baten bueltan jarrita. Kanpoan eguraldiak ez zuen lagundu, baina aterpean gozo-gozo egon ziren, kontu-kontari eta giro ederrean.

Herriko dantzari eta muslariak Malerreka Egunean izan dira

Dantzariak bi kanta dantzatu zituzten eta mus txapelketan Imanol eta Unai izan ziren herriko ordezkariak

JAIONE ARIZTEGI

Herritarrek, bertze urte batez, Ezkurran ospatu zen Malerreka Egunean parte hartu zuten.

Dantzarien saioa

Aurtengoan eguraldia lagun izan ez bazuten ere, argazkiko dantzariak emanaldi ederra eskaini zuten. Guztira bi kanta dantzatu zituzten: bat haurrek osatutako taldeak; eta bertzea helduek.

Mus txapelketa

Dantzariak ez ezik, herriko muslariak ere izan ziren. He-

rriz herri egindako mus kanporaketetan argazkiko hiru bikoteak izan ziren Urrozen gailendu zirenak. Hirugarren postuan Alfontxito eta Ibai, bigarrenean Joseba eta Xabier eta lehendabizikoan Imanol eta Unai. Azken horiek, Ezkurran jokatu zuten finalean parte hartu zuten.

Kasu batean zein bertzean herritarrek biltzeko aitzakia izan da Malerreka Eguna. Muslariak jokaturako kanporaketan eta dantzarien entsegetan giro ederra izan dute azken aldian herrian.



Goitian dantzariak eta behegian mus txapelketako parte-hartzaileak. J. ARIZTEGI

DONEZTEBEN neurrira egindako etxebizitzak



PROMOCIONES
MALERREKA

T. 629 951 170 (Aitziber) | 650 328 879 (Sergio)

**2. faseko
AZKEN AUKERAK!**

Etorri eta erakutsiko dizuegu!



Ikusi pisu pilotoa!!



110.000€tik aurrera

Garaje marra + trastelekua prezioaren barruan

✓ Zure beharren arabera finantziakoa,
Rural Kutxaren babes eta abalarekin



**EZKAIN
ERAIKUNTZAK-ek
eraikiak**



Bigarren seihiilekorako ikastaroak prest

Ikastaroek eta kiroldegietako jarduerak %40ko deskontua izanen dute

FERNANDO ETXEBERRIA

Zuzendaritza Batzordea apirilaren 30ean bildu zen eta lehendabiziko seihiilekoaren balorazioa egitearekin batera, aitzinera begira zenbait erabaki hartu zituen.

Parte-hartzea

Hasteko, aurten eginiko bidaia, ikastaro, mendi-irteera, jubilotea zerbitzu eta gainerako jarduerak izan zituzten hizpide. Aipatu zutenez, bidaietan 1.395 lagunek parte hartu dute, ikastaroetan 702k eta mendi-irteeretan 306k. Horrekin

batera, bigarren seihiilekorako jarduerak antolatu zituzten, baita horien prezioak eta kuota finkatu ere.

Deskontua

Ikastaro eta kiroldegietako jarduerari dagokienez, %40ko deskontua izanen dutela jakinarazi zuten (ez %50ekoa orain artean bezala). Izan ere, Nafarroako Gobernuak ematen duen dirulaguntza zenbatekoa izanen den oraindik ez dakite. Horrela bada, «kontuz» jokatzeko asmoa adierazi zuten.

64 lagunek Lurdesen egun-pasa egin dute

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 9an, ortzegunean, elkarteko 64 bazkide Lurdesera joan ziren. Egunak argitu orduko abiatu ziren eta 11:00etarako ailegatu ziren. 12:00etan, Doneztebeko Juan Zabalo meza eman zuen eta gero basilikaren inguruan ibil-

tzeko tartea izan zuten. 13:30ean Florida jatetxean bildu ziren, mahaiaren bueltan. Bazkalondoa errosarioa errezatzeko baliatu zuten eta ondorengo prozesioan ibili ziren. 18:20 aldera autobusa hartu eta etxerantz itzuli ziren. Egun-pasa polita egin zuten.

Benidorm eta Gandian egun ederrak

Benidormera eta Gandiara egingako bidaia positiboki baloratu dute kideek. Bai instalazioak baita zerbitzuak ere egokiak izan dira eta, eguraldi bikaina tarteko, egun ederrez gozatu ahal izan dute.



FERNANDO ETXEBERRIA

Santiagoko bidean zortzi kide

Santiagoko bidearen azken hamar etapak (240 kilometro) egin dituzte elkarteko zortzi kidek. Eguraldiaren gorabeherak alde batera utziz, esperientzia ederra bizi izan zuten, eta bertze herrialde batzuetako jendearekin egoteko aukera izan zuten.



FERNANDO ETXEBERRIA

Urtebetetzea ospatzen

Gandiako bidaian zeudela, elkarteko bazkide den Hipolitok 80. urtebetetzea zuela ospatu zuten. Egonaldiaz gozatzearekin batera, haren omenez topa egin zuten bazkideek. Lerro hauen bidez aunitz urtez opa nahi izan diote.



Herriz herriko emaitzak eta boto gehien bildu dituzten alkategaien argazkiak

ARANTZA

Dabid
ITURRIA ALMANDOZ
(EH BILDU)



7 HAUTETSI | ZENTSOA: 481

	2015	2019
EH Bildu	7 253	7 270
Baliogabeak	93	57
Zuriak	29	22

BERTIZARANA

Andres
ETXENIKE IRIARTE
(EH BILDU)



7 HAUTETSI | ZENTSOA: 459

	2015	2019
EH Bildu	7 149	7 181
Baliogab.	45	42
Zuriak	73	52

GOIZUETA

Unai
MIRANDA BERROETA
(EH BILDU)



7 HAUTETSI | ZENTSOA: 588

	2015	2019
EH Bildu	7 395	7 405
Baliogab.	25	20
Zuriak	12	12

SUNBILLA

Amets
INDA GORRIARAN
(EH BILDU)



7 HAUTETSI | ZENTSOA: 575

	2015	2019
EH Bildu	7 229	7 314
Baliogab.	50	38
Zuriak	69	34

ARESO

Jose
OTERMIN ETXARRI
(ARESO ERAIKIZ)



7 HAUTETSI | ZENTSOA: 221

	2015	2019
A. Eraikiz	7 129	7 150
Baliogab.	7	2
Zuriak	12	3

DONAMARIA

Natalia
REKARTE OTEIZA
(HERRIARENGATIK)



7 HAUTETSI | ZENTSOA: 339

	2015	2019
Herriarengatik	7 227	6 222
Denongatik		1 70
Baliogab.	6	1
Zuriak	14	5

IGANTZI

Juan Carlos
UNANUA NAVARRO
(HERRI TALDEA)



7 HAUTETSI | ZENTSOA: 476

	2015	2019
Herri Taldea	*	7 295
Baliogab.	*	13
Zuriak	*	15

* Ez zen talderik aurkeztu.

URDAZUBI

Iñaki
ARIZTIA URRIZA
(AZKAR)



7 HAUTETSI | ZENTSOA: 298

	2015	2019
Azkar	4 151	4 147
Geroa Bai		3 89
Elgarrekin	3 123	
Baliogab.	5	13
Zuriak	8	18

BAZTAN

Joseba
OTONDO BIKONDOA
(EH BILDU)



13 HAUTETSI | ZENTSOA: 6.036

	2015	2019
EH Bildu	4 1.449	6 2.016
Navarra Suma		3 868
Ezkerra	2 595	2 697
Geroa Bai	2 618	2 577
UPN	4 1.216	
B. Auzolan.	1 382	
Baliogab.	54	54
Zuriak	94	77

DONEZTEBE

Xanti
UTERGA LABIANO
(EH BILDU)



9 HAUTETSI | ZENTSOA: 1.239

	2015	2019
EH Bildu	6 555	7 592
Navarra Suma		2 225
PPN	0 50	
PSN	3 266	
Baliogab.	41	37
Zuriak	24	59

LEITZA

Mikel ZABALETA
ARAMENDIA
(EH BILDU)



11 HAUTETSI | ZENTSOA: 2.296

	2015	2019
EH Bildu	9 1.193	10 1.381
Navarra Suma		1 247
UPN	2 252	
Baliogab.	95	47
Zuriak	83	52

ZUBIETA

Ernesto
DOMINGUEZ OLEA
(HERRIKO TALDEA)



7 HAUTETSI | ZENTSOA: 234

	2015	2019
Herriko Tal.	6 145	7 101
Zubietarrak	1 43	
Baliogab.	1	15
Zuriak	7	27

BERA

Aitor
ELEXPURU EGAÑA
(EH BILDU)



11 HAUTETSI | ZENTSOA: 2.759

	2015	2019
EH Bildu	6 952	7 1.120
Herrirako	4 583	4 589
Navarra Suma		0 112
PPN	0 32	
UPN	1 166	
Baliogab.	67	24
Zuriak	94	40

ETXALAR

Miguel Mari
IRIGOIEN SANZBERRO
(HERRI TALDEA)



7 HAUTETSI | ZENTSOA: 632

	2015	2019
Herri Taldea	5 261	5 274
EH Bildu	1 85	2 137
Navarra Suma		0 49
Etxalar Bai	1 100	
UPN	0 24	
Baliogab.	14	3
Zuriak	6	22

LESAKA

Ladis SATRUSTEGI
ALZUGARAI
(EH BILDU)



11 HAUTETSI | ZENTSOA: 2.186

	2015	2019
EH Bildu	5 666	6 842
Geroa Bai	6 853	5 763
Baliogab.	50	26
Zuriak	71	31

ALKATE ZEIN IZAN DEN ERABAKIA GELDITU DA HERRI GUZTIETAN ETA LESAKAN IZAN DA ALDAKETARIK HANDIENA: EH BILDU NAGUSITU ZAIO GEROA BAIRI.



Ikusi gehiago:

Aurtengo datu guuziak eta bertze urteetako konparaketak

<https://erran.eus/hauteskundeak/mota-nafarroako-parlamenturako-hauteskundeak>

Zerrenda irekiak dituzten herriak

ARANO

Zentsoa: 102 | Parte-hartzea: 61

Herri Aierriz (5 zinegotzi), 45 boto.

Baliogabeak: 2 | Zuriak: 6

BEINTZA-LABAIEN

Zentsoa: 198 | Parte-hartzea: 99

Herriarengatik (5 zinegotzi)

Bozkatuena: Jon Telletxea (71 boto) Baliogabeak: 5 | Zuriak: 2

ZUGARRAMURDI

Zentsoa: 183 | Parte-hartzea: 118


Akelarre: 81 boto (5 zinegotzi)

Baliogabeak: 3 | Zuriak: 3

Edizioa interakoa ez genuen
Saldiasko udalerako eta
Oierregiko kontzejurako daturik.

**ELGORRIAGA,
ERATSUN,
ITUREN,
EZKURRA, OIZ
ETA URROZEN
ETA NARBARTE
ETA LEGASAKO
KONTZEJUETAN
EZ DENEZ INOR
AURKEZTU,
URRIAN 2.
DEIALDIA
IZANEN DUTE.**

Nafarroako parlamenturako hauteskundearen emaitzak






NAFARROA

	2015	2019*
Navarra Suma	123.622	123.622
PSN-PSOE	45.164	69.893
Geroa Bai	53.497	58.723
EH-Bildu	48.166	49.437
Podemos	46.207	16.033
Ezkerra	12.482	10.194
Vox	-	4.351
Bertzeak	9.782	3.660
UPN	92.705	-
PP	13.289	-
C's	9.993	-
Zentsoa	501.267	471.436
Partehartzea	342.173	340.716
Baliogabeak	4.280	2.121
Zuriak	6.610	2.682

* Kontatuak %97,59

ESKUALDEKA



BAZTAN




	2015	2019
EH-Bildu	1.255	1.580
Geroa Bai	1.139	1.279
Navarra Suma	-	802
PSN-PSOE	138	261
Ezkerra	122	119
Podemos	311	68
Vox	-	18
Bertzeak	63	16
UPN	1.046	-
PP	104	-
C's	47	-

BERTIZARANA

	2015	2019
EH-Bildu	121	114
Geroa Bai	69	86
Navarra Suma	-	50
PSN-PSOE	14	29
Podemos	24	5
Ezkerra	3	2
Vox	-	1
Bertzeak	4	1
UPN	38	-
PP	3	-
C's	5	-

BORTZIRIAK

	2015	2019
Geroa Bai	1.579	1.932
EH-Bildu	1.592	1.678
Navarra Suma	-	458
PSN-PSOE	165	303
Podemos	564	170
Ezkerra	50	52
Vox	-	15
Bertzeak	58	11
UPN	403	-
PP	87	-
C's	66	-



MALERREKA

	2015	2019
Geroa Bai	775	1.017
EH-Bildu	980	931
Navarra Suma	-	369
PSN-PSOE	140	163
Podemos	187	42
Ezkerra	24	19
Vox	-	6
Bertzeak	61	12
UPN	282	-
PP	85	-
C's	28	-

LEITZALDEA-URUMEALDEA


	2015	2019
EH-Bildu	1.366	1.354
Geroa Bai	466	655
Navarra Suma	-	212
PSN-PSOE	39	70
Podemos	105	18
Ezkerra	10	18
Vox	-	7
Bertzeak	8	2
UPN	203	-
PP	26	-
C's	3	-

URDAZUBI ZUGARRAMURDI


	2015	2019
Geroa Bai	125	140
Navarra Suma	-	81
EH-Bildu	78	78
PSN-PSOE	9	33
Vox	-	6
Podemos	33	5
Ezkerra	4	4
Bertzeak	5	1
UPN	85	-
PP	14	-
C's	10	-

EH Bildu izan da indar nagusia baina aunitz hurbildu zaio Geroa Bai

PODEMOSEK JAUTSIERA HANDIA IZAN DU ETA PSN-K GOITI EGIN DU NABARMEN



2015eko datuak




2019ko maiatzaren 26a




	Zentsoa	Partehartzea	Abstentzioa	Baliogab.	Zuriak	Navarra+	Gero Bai	EH-Bildu	PSN-PSOE	Podemos	Vox	Bertzeak
ARANO	102	62	40	1	0	4	15	39	1	2	0	0
ARANTZA	480	351	129	6	5	22	128	171	10	5	0	4
ARESO	221	153	68	1	3	15	57	66	8	1	0	2
BAZTAN	6.007	4.262	1.745	58	55	802	1.279	1.580	261	68	18	135
BEINTZA-LABAIEN	198	107	91	3	4	28	42	22	5	1	1	1
BERA	2.742	1.873	869	13	10	215	702	650	165	83	4	31
BERTIZARANA	453	296	157	4	4	50	86	114	29	5	1	3
DONAMARIA	335	294	41	4	4	42	145	76	11	4	0	8
DONEZTEBE	1.234	911	323	16	11	193	329	266	65	15	0	15
ELGORRIAGA	181	130	51	1	1	14	48	55	7	3	1	0
ERATSUN	141	78	63	2	0	8	46	17	3	1	0	1
ETXALAR	620	481	139	2	10	62	196	167	23	15	1	5
EZKURRA	137	68	69	0	1	8	24	25	7	0	0	3
GOIZUETA	587	436	151	5	3	11	95	310	5	5	1	1
IGANTZI	476	324	152	2	0	26	140	114	27	14	1	0
ITUREN	383	268	115	1	0	18	95	129	19	5	1	0
LEITZA	2.273	1.716	557	14	4	182	488	939	56	10	6	17
LESAKA	2.177	1.654	523	6	10	133	766	576	78	53	9	23
OIZ	101	60	41	2	0	3	31	17	4	2	1	0
SALDIAS	100	70	30	2	0	2	26	35	2	2	0	1
SUNBILLA	573	388	185	6	3	30	144	173	22	8	1	1
URDAZUBI	283	254	29	1	11	67	107	37	22	1	5	3
URROZ	156	95	61	2	0	17	43	19	13	0	1	0
ZUBIETA	232	158	74	1	3	6	44	97	5	1	0	1
ZUGARRAMURDI	177	111	66	3	2	14	33	41	11	4	1	2
Denetara	20.068	14.600	5.468	156	144	1.972	5.109	5.735	859	308	53	257

EH Bildu izan da indarrik bozkatuena Europari begira ere

6.195 BOZ LORTU DITU, GEROA BAIREN BOTOAK IA BIKOIZTUZ



2014ko datuak



2019ko maiatzaren 26a



	Zentsoa	Partehartzea	Abstentzioa	Baliogab.	Zuriak	PP	Geroa Bai	Orain Err.	PSOE	Podemos	C's	Bertzeak
ARANO	102	61	41	1	1	0	12	30	2	1	0	14
ARANTZA	480	350	130	6	8	8	101	185	23	13	3	3
ARESO	221	152	69	4	3	7	37	74	19	6	1	1
BAZTAN	6.645	4.153	2.492	64	152	418	788	1.675	573	245	71	167
BEINTZA-LABAIEN	198	100	98	3	3	17	28	26	10	5	0	8
BERA	2.761	1.862	899	22	45	77	357	704	304	236	42	75
BERTIZARANA	457	293	164	7	8	29	50	126	50	16	3	4
DONAMARIA	336	286	50	7	9	20	91	87	38	14	2	18
DONEZTEBE	1.240	895	345	20	23	102	208	289	134	64	22	33
ELGORRIAGA	183	130	53	2	2	4	38	56	16	7	4	1
ERATSUN	141	75	66	0	2	6	30	22	11	2	0	2
ETXALAR	630	464	166	6	19	22	117	183	56	38	9	14
EZKURRA	137	65	72	0	1	3	24	22	12	1	0	2
GOIZUETA	588	436	152	4	8	2	67	335	9	8	1	2
IGANTZI	477	325	152	2	0	14	103	132	49	19	1	5
ITUREN	384	268	116	1	4	3	73	139	32	5	1	10
LEITZA	2.291	1.709	582	21	15	130	274	1.039	133	59	5	33
LESAKA	2.186	1.615	571	13	33	55	470	619	204	145	20	56
OIZ	102	59	43	1	0	2	23	22	4	5	0	2
SALDIAS	100	66	34	2	1	2	12	37	6	3	1	2
SUNBILLA	573	383	190	11	8	11	85	184	55	21	3	5
URDAZUBI	295	255	40	8	19	20	89	44	44	6	7	18
URROZ	156	92	64	1	4	8	39	18	15	3	0	4
ZUBIETA	234	160	74	1	5	3	31	105	4	5	1	5
ZUGARRAMURDI	181	111	70	4	4	13	24	42	7	6	1	10
Denetara	21.098	14.365	6.733	211	377	976	3.171	6.195	1.810	933	198	494

Ingurumenaren Mundu Eguna ospatuko dute

Ekainaren 8an esperimentuak, solasadiak eta bisita antzeztuak izanen dituzte Bertizko Jaurerriko Natur Parkean

TTIPI-TTAPA

#AirearenKutsadurarikGabe Planeta baten alde goiburupuan, Munduko Ingurumen Eguna ospatuko dute ekainaren 8an Bertizko Jaurerriko Natur Parkean.

Egitarauari dagokionez, 11:30ean airearen eta uraren kalitatea ebaluatzeko esperimentuak egingen dituzte, 6 urte baino gehiago duten haurrentzako. Gehienezko kopurua 30 pertsonakoa da eta doakoa izanen da.

Ordu berean, *Kutsadura atmosferikoaren ondorioak ekosistema eta bioaniztasunean* hitzaldia eskainiko dute Bertizko Jauregian. Bertizko Natur Parkeko kontserbazioko datu batzuk Jesus Miguel Santamaria Uleciaren eskutik. Nafarroako Unibertsitatean Biologian eta Ingurumenean Doktorea eta Kimika Analitikoan Katedraduna da Santamaria.

12:30ean, Lorategi Historiko – Artistikoan bisita antzeztua eskainiko dute, Emaizta antzerki taldearen eskutik. Gehienezko kopurua 25 pertsona



Santamaria Ulecia hizlaria izanen da.

da. Helduek 7 euro ordaindu beharko dute eta 18 urtez beheitikoek 3 euro.

17:30ean, berriz ere aire eta uraren kalitatea ebaluatzeko esperimentuak egingen dituzte, 6 urte baino gehiago duten haurrentzako.

Ordu berean, Lorategi Historiko – Artistikoan bisita antzeztua, Emaizta antzerki taldearen eskutik. Goizean bezala, salneurria 7 eurokoa izanen da pertsona helduentzat eta 3 euro bertezentzat.

Esperimentuetan eta antzeztutako bisitetan aurretik izen-emateko aukera dago, 948 59 24 21 telefonoan edo cinberti@cfnavarra.es helbide elektronikokoan (maiatzaren 27tik aitzinera).

ELAIDE webgunea sortu dute Nafarroako 28 euskara zerbitzuek

TTIPI-TTAPA

Nafarroako toki-entitateetako 28 euskara zerbitzuek elkar-lanean sortu dute *elaide.eus* webgunea, euskaraz ikasten ari direnei laguntza eta baliabideak eskaintzeko xedearekin. ELAIDE hitzak bi erranahi ditu, batetik, hizkera edo hizkuntza

erran nahi du; eta, bertzetik, norbaitekin tratua duen pertsonari edo pertsona ezagunari egiten dio erreferentzia.

Euskaraz bizitzeko eta gehiago ezagutzeko tresna bat da, euskaraz ikasten ari direnei lagungarri izanen zaizkien informazio eta tresnekin.



ALICIA DEL CASTILLO

N-121-A errepidean segurtasuna eskatuz

N-121-A errepidean segurtasuna bermatzeko elkarretaratzea egin zuten maiatzaren 17an. *Segurtasuna gure lehentasuna!* goiburupuan bildu ziren herritarrak, Sunbilla eta Doneztebe arteko hotel zaharra deritzotenean. Bi herrietako alkateak, Amets Inda eta Xanti Uterga, kexu ziren, «errepide honetako erabiltzaile nagusiak izanik, ez digutelako iritzirik eskatu eta ez dute parte-hartze prozesurik ireki. Paper gainean itxura ederra duten obrak diseinatu dituzte, baina gero, errepidean, emaitza arriskutsuak izanen dituztela uste dugu». Gainera, ez dute ulertzen 2012an onartu zen proiektu bat kontuan hartu ez izana oraingoa idazterakoan. Egitasmo horretan, Sunbillako sarrera-irteerak bertze maila batean egitea aurreikusten zuten.

GASOLIO DEPOSITUEN GARBIKETA INERTIZAZIOAK

EZ ALDATU DEPOSITUA

Berria bezala utziko dizugu 5 pausotan

- 1 Gasolia ontziz aldatzea
- 2 Presiopeko garbiketa
- 3 Hondarrak ateratzea
- 4 Hasierako ontzira itzuli eta erregaia bigarren mikroiragazketa
- 5 Hondakinen tratamendua eta ingurumen-kudeaketa



ANDUEZA MURO S.L.

PETROLIO-ENPRESA KONPONTZAILEA ETA MANTENTZAILEA

CAT III N° 15-B-E40-0052034

Mutiloabeitiko industrialdea H, 14 - MUTILOABEITI

Telefona: 948 103 204 | 699 459 973 (Matxurak)
E-mail: manduezamuro@hotmail.com | www.anduezamuro.es

Artikutzako balio naturalaz hitzaldia ekainaren 8an

Artikutzako hustuketa-prozesua ikertzen ari den Arturo Eloseggi izanen da hizlari

TTIPI-TTAPA

Udalak Artikutzarako sarbidea egokitu du, eremua baliabide turistiko bezala baliatzeko. Zabortegia zegoen tokitik hasita, 900 metro inguru asfaltatu dituzte eta Leitza-Goiizueta-Hernaniko NA-4150 errepidean bidea adierazteko seinaleak jarri dituzte.

Lanek guztira 104.333,33 euroko gastua izan dute baina Gobernuari eta Landa Garapenerako Programa Europarrari esker, Nafarroako Landa Garapenerako programatik 50.000 euro jaso dituzte. Horrela bada, Udalak 54.333,33 euro baliatu ditu.

Hitzaldia ekainaren 8an

Artikutzak duen balio naturala aberatsa da eta horren harira, hitzaldia eskainiko dute ekainaren 8an, larunbatean,



Udalak seinaleak jarri ditu.

herriko ganbaran. 11:00etan zehaztu dute hitzordua.

Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzia eta Teknologia Fakultatean, Landareen Biologia eta Ekologia sailean, irakasle katedraduna den Arturo Eloseggi izanen da hizlari. Beste irakasle batzuekin batera, Artikutzako hustuketa-prozesua ikertzen ari da.

Astearte goizetan podologia-zerbitzua herrian

Maiatzaren 21etik aurrera, asteartetan, Imanol Galartza podologoa herrian izanen da. Goizetan eskainiko du zerbitzua jubilatuen elkarteetan eta herri-tar guztiei irekia izanen da. Hala, zerbitzua jaso nahi dutenek edo beharra dutenek bertatik bertara jasotzeko aukera izanen dute. Interesa dutenek berarekin harremanetan jarriz eman dezakete izena. Horretarako 666 96 20 38 telefonora mezu bat bidali edo jubilatuen elkartera bertaratu eta ordua adostea aski izanen dute.

Goizukoopeko urteko batzarra ekainaren 15ean

Ekainaren 15ean, larunbatean, Goizukooopen urteko batzar orokorra eginen dute herrian. Ikastetxeko jangelan bilduko dira, 11:00etan. Batzarrean gasolindegia nolakoa izango den eta urteko kontuak aurkeztuko dituzte.



Txakolin-dastaketa ekainaren 2an eginen dute

TTIPI-TTAPA

Umore Onak antolatuta, herri-tarrek urte batzuz txakolin-degitara irteerak egin dituzte. Azken urteetan parte-hartzeak beherakada izan zuenez, joan den urtean elkarteak batzordeak txakolin-dastaketa herrian bertan egitea erabaki zuen.

Heldu den larunbatean, ekainaren 2an, dastaketaren bigarren edizioa izanen dute. Txakolin-zaleak elkarteetan bilduko dira, 12:00etan. Guztira sei txakolin dastatuko dituzte eta horien lagungarri gisa luntx ederra eskainiko dute. Parte



Elkartean bilduko dira.

hartu nahi dutenek aurretik jakinarazi behar dute. Apuntatzeko azken eguna maiatzaren 30a, osteguna, izanen da eta 10 euro ordaindu beharko dituzte.

Zakurrei txertoa jartzeko albaiteroa herrian izanen da ekainaren 11n

TTIPI-TTAPA

Udalak bando bidez jakinarazi duenez, ekainaren 11n, asteartean, zakurrei txertoa jartzeko, albaiteroa herrian izanen da, 18:15etik aurrera landan. Txertoa jarri ahal izateko titularraren nortasun agiriaren zenbakia eta txaku-

rraren kartilla eraman beharko dira. Txertoa bakarrik 25 euro ordaindu beharko dira; txertoa eta identifikazioa, berriaz, 45 euro (identifikazioa eta txertoa lau hilabetetik aurrera egin behar da). Jabez aldatzeak hamar euro balioko du.



UTZITAKOA

Herri-batzarra egin dute

Maiatzaren 10ean 2015-2019 agintaldiari bukaera emateko herri-batzarra egin zuten. 25 lagun inguru elkartu ziren eskolako jantokian eta udalkideek alor bakoitzean egindako lanen laburpen bat egin zuten. Aurkezpenearen xehetasunak www.goizueta.eus atarian kontsulta daitezke.



Hainbat lan egin izan dira herrian auzolanean. ARTXIBOKOA.

Urumea garbitzeko auzolana deitu dute ekainaren 1erako

Auzolanean parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute maiatzaren 30a baino lehen

TTIPI-TTAPA

Gozatu, zaindu, elkarbanatu! lelopean, Urumea garbitzeko auzolana antolatu dute. Ekainaren 1ean Abaño bilduko dira, 10:00etan. Beharrezko materiala antolakuntzak jarriko du eta beraz, parte-hartzaileek «oinetako erosoak» baino ez dituzte beharko.

Ondotik, Aranon bazkalduko dute (etxean eramandakoa). Gero denentzako postrea han bertan eskainiko dute. Auzolanean parte hartu nahi dutenek maiatzaren 30era arte eman dezakete izena. Horretarako, jalkikulturelkartea@gmail.com helbidera idatzi behar dute.



UTZITAKOA

Olazabalen lanak ikusgai Kontsejupen

Amagoia Olazabal artista hondarribitarraren zeramika-lanak ikusgai egonen dira ekainaren 14ra bitarte, Kontsejupe tabernan. Tabernaren ohiko ordutegian ikusi ahal izanen dira haren lanak. Horiek erosi ahal izanen dira, baita erakusketa bertan dagoen bitartean ere.



E. IRAOLA, I. SAGASTIBELTZA

Korrikarako haizeak gogor jo du herrian

Inoiz baino herritar gehiagok parte hartu zuten maiatzaren 18an jokatu zen EH Mendi Erronkan. Txomin Belauntzarane, Arkaitz Nietok, Leire Baraibarrek, Irantzu Alustizak eta Iker Barandaraiek lortu zuten bakarka edo erreleboka 67 kilometroko erronka osatzea. Zorionak!

Wifi gune irekia sortzeko 15.000 euroko dirulaguntza lortu du Udalak

TTIPI-TTAPA

Eremu publikoan doako wifi konexioa jartzeko dirulaguntzak eman berri ditu Europako Batzordeak eta Areso izan da laguntza lortu duten 3.400 herrietako bat. 15.000 euroko dirulaguntza izango da eta horri esker, eskola edo plaza

inguruan, zehazteko dute oraindik tokia, wifi dohainik izango dute herritarrek. Laguntzak jasotzen dituzten momentutik hasita, Udalak wifi konexioa bermatzeko, 18 hilabeteko epea izango du. Gutxienez 30 MB/s abiadura izango du internet zerbitzuak.

Eskolako lanen %30 Hezkuntza Sailak finantzatuko du

Eskolako leihoak berritzeko 10.000 euroko dirulaguntza eman du Hezkuntza Sailak. Hala, lanen ehuneko ehuna dirulaguntza bidez ordainduko da (%70 Leader programaren bidez ordainduko baita). Udalak BEZa soilik ordaindu beharko du.

Amorruaren aurkako txertaketa ekainaren 13an

Lau hilabete baino gehiago dituzten txakurrak amorruaren aurka txertatzeko aukera izango da ekainaren 13an, 16:00etatik aurrera Udaletxe azpiko trinketeen. Albaitaria etorriko da bertara. Bi urtean behin txertatzea derrigorrezkoa dela gogorarazi dute.



Lasterketan parte hartu zuten zenbait leitzar. E. IRAOLA, I. SAGASTIBELTZA, J. L. UHARTE

525 lasterkarik osatu dute VII. Euskal Herria Mendi Erronka

Ion Azpirozek (6h 45 min 07seg) eta Uxue Frailek (8h 04min 34seg) irabazi zuten lasterketa eta erreleboka Garazi Artola eta Ibai Madina izan ziren azkarrenak

TTIPI-TTAPA

Euria, lainoa eta hotza izan zituzten bidelagun maiatzaren 18an Euskal Herria Mendi Erronka osatzeko saiakera egin zuten 691 lasterkariek. Baita boluntarioen eta hurbilekoen animoak ere. 450 boluntario aritu ziren lanean eta ohikoa denez, asko izan ziren lasterketa ikustera joandakoak ere. Azkenean, 525 lasterkarik lortu zuten lasterketa bukatzea, 459k bakarka eta 33k erreleboka.

Iker Karrerari egindako omenaldiarekin eman zioten hasiera lasterketari. Aurrerako dantzariak agurra dantzatu zioten eta Okille tailerrekoek egindako oroigarria jaso zuen oparitan. 08:00etan puntuan abiatu ziren lasterkariak Leitzako plazatik eta 14:45ak aldera iritsi zen helmugara irabazlea, Ion Azpiroz Azpiroz berastegierra. Lehendabiziko emakumea, Uxue Fraile Azpeitia izan zen, 16:00ak jo

berritan sartu zen Leitzako plazara.

Gizonezkoetan Jonatan Tejada izan zen bigarrena, (6.57.32) eta Iker Etxeberriak osatu zuen podiuma (7.05.31). Emakumezkoen artean ia ordu laurdeneko aldea atera zion Uxue Frailek, Silvia Trigerosi (8.18.46). Izaskun Zubizarreta izan zen hirugarrena (8.47.44).

Aurten estreinakoz lasterketa erreleboka osatzeko aukera ere eskaini zuten. Bikoteek

VII. EH MENDI ERRONKA

ESKUALDEKOAK 67 KM (BAKARKA)

14. Hodei Lujanbio-Goizueta	7.31.15
37. Daniel Parraga-Leitza	8.08.42
45. Oskar Ariztimuño-Leitza	8.16.21
48. J. Ander Zabaleta-Leitza	8.17.59
57. Iñaki Zabaleta-Leitza	8.27.00
65. Xuban Goñi-Elizondo	8.32.08
72. Txomin Belaunzarán-Areso	8.35.17
77. Jon Zabaleta-Leitza	8.40.10
88. Eneko Andueza-Leitza	8.43.17
145. Eneko Zabaleta-Leitza	9.15.02
152. Arkaitz Nieto-Areso	9.20.00
154. Iker Gomez-Leitza	9.22.05
200. Iker Barandarán-Areso	9.40.28
247. Eneko Gorostiaga-Ezkurra	10.05.34
254. Pello Kanflanka-Leitza	10.09.32
268. Rafa Alzate-Erratzu	10.21.09
276. Zigor Sagardui-Goizueta	10.24.11
333. Aitor Bengoetxea-Leitza	10.58.55
354. Mikel Irigoien-Lesaka	11.15.23
405. Markel Barriola-Leitza	12.09.08
421. Arkaitz Labaien-Leitza	12.39.23

ESKUALDEKOAK ERRELEBOKA

3. Leire Baraibar-Areso	
Ion Erdaide	7.28.41
13. Amaiur Alkain-Leitza	
Sergio Ariztimuño-Leitza	8.51.36
14. Irantzu Alustiza-Areso	
Arkaitz Nieve-Leitza	8.52.51
22. Garbiñe Hernandorena-Leitza	
Mikel Saralegi-Leitza	9.56.07
23. Ane Egizabal-Leitza	
Iñaki Sagastibeltza-Leitza	9.56.19
27. Aitziber Zabaleta-Leitza	
Aritz Urkizu	10.16.26

Putzuzarren eman zieten erreleboa elkarri. Garazi Artola eta Ibai Madina izan ziren lehenbizikoak (7.10.26) eta haien atzetik, ordu laurden eskasera, Goar Lopetegui eta Izar Amundarain helmugaratu ziren. Leire Baraibar aresoarrak eta Ion Erdaidek osatutako bikotea izan zen helmugan hirugarrena (7.28.41).

Indarberritzeko auzolanean egindako paella bikaina zuten lasterkari guztiek esperoan.

Ingelesa praktikatzeko 'Splash' ikastaroak antolatu dituzte

TTIPI TTAPA

Denok Bat guraso elkarteak, Nafarroako Gobernuaren CNAI ikastetxearekin elkarlanean, ingelesa ikasteko ikastaroak antolatu ditu. Igerilekuan eskainiko dituzten saioetan komunikazioa erabat ingelesez

izanen da. Uztailaren 22tik abuztuaren 2ra, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 13:00etara izanen dira eskolak. Ekainaren 2ra arte dago izena emateko aukera 948 207 343 telefonora deituta edo internet bidez www.cnai.es.

Gozamenez lehiaketan publikoaren saria

Bigarren urtez jarraian, Leitzako Amazabal institutuko DBH 3ko ikasleen lana saritua izan da Gozamenez film labur lehiaketan. Publikoaren saria eskuratu dute *Gozamena*, *aniztasunez*, *askatasunez* lanarekin.



Publikoaren saria lortu dute.

42 artisauren lanak bilduko ditu igandeko azokak

Ekainaren 8an, berriz, hoguei sagardotegitako zukuak dastatzeko aukera izanen dute XI. Sagardo Egunean

JM BARRIOLA

Maiatzaren 8an hasi zen Kultur Aroko ekitaldiek jendetza mugiarazi dute eta oraindik bada non gozatua.

Maiatzaren 30ean, osteguna, *Aralar: Mundua leku den lurra* dokumentala izanen da ikusgai Aurrera Elkartean 19:30etik aurrera. Maiatzaren 31n, osteguna, VIII. film labur txapelketako lanak izanen dituzte ikusgai Atekabeltzen 23:00etatik aurrera.

Ekainaren 1ean, 11:00etan ipuin-kontaketa eta tailerra dituzte eskolan eta 13:00etan

Sorgina Pirulinak youtuber izan nahi du eskainiko dute. 18:30ean, Atekabeltzen Haur Hezkuntzako tailerrak egingen dituzte.

41. Eskulangintza Azoka

Hauteskundeak tarteko, aurtent astebete atzeratu dute Eskulangintza Azoka. 41. edizioa beteko du eta 42 artisauk parte hartuko dute. Goiz eta arratsalde, eskaintza zabala izanen da herriko plazan.

Ekainaren 6an, *Agosti Xaho Leitza* emanaldia izanen dute 19:00etan liburutegian.



Jatekoak, bitxiak, osagarriak... denetarik erosteko aukera izanen da. ARTXIBOA

Ekainaren 8an sagardoa erruz Ekaineko bigarren larunbatean, 11. Sagardo Eguna ospatuko dute. Nafarroa eta Gipuzkoako 20 sagardogilek ekarriko dituzte beren sagardoak eta

herritarrek eta ostatuek auzolanean prestatutako pintxoak dastatzeko aukera ere izanen dute bertaratzen direnek. Aipagarria da, iaz, 925 botila inguru edan zituztela.

Erakutsi eta probestu aukerak!

2019-2021

DESKONTUAK LEITZALDEA TTIPI TXARTELA

%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan Huarte Gotzaia, 19 LEITZA T. 948 51 01 73	%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan %10 DESKONTUA 50€tik gorako erosketetan ESTIMEDERM markan ezik Elbarren, 67 LEITZA T. 948 51 02 73	%10 DESKONTUA koltxo, somier eta burkoetan. Eskaintzetan izan ezik Elbarren, 45 LEITZA T. 948 51 02 08	%10 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan Landa Behetxea LEITZA T. 948 51 04 37	%3 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan Elbarren, 21 LEITZA T. 948 51 00 55
%10 DESKONTUA oparitzeko artikuluetan Elbarren, 15 - Herriko Plaza LEITZA T. 948 51 01 46	%5 DESKONTUA 25€tik gorako erosketetan Elbarren LEITZA T. 948 61 09 74	%5 DESKONTUA gozotegian 30€tik gorako erosketetan Elbarren, 20 LEITZA T. 948 51 07 20	%5 DESKONTUA erosketa guztietan Elbarren, 19 LEITZA T. 948 51 07 48	%10 DESKONTUA hamar saiko bonoan Huarte Gotzaia, 8-3.C LEITZA T. 948 51 07 30



Hitzarmenaren sinadura ekitaldian parte hartu zutenak. UTZITAKO ARGAZKIA

Kanpo Lana hitzarmena sinatu dute Elizondon

Ikasleak ikasgelatik kanporatu ordeztu, Elizondoko Zahar Etxean eginen dituzte gizartearen aldeko lanak

TTIPI-TTAPA

Elkarbizitza sustatzeko helburuarekin, Kanpo Lana hitzarmena sinatu zuten maiatzaren 9an Elizondoko Lanbide Eskolan Roberto Perez Elorza, Nafarroako Gobernu-ko Hezkuntza zuzendari nagusiak eta Rafael Sanchez-Ostiz Gutierrez, Idea Asistencia enpresako zuzendari nagusiak. Laburbilduz, ikasgelatik kanporatzeko zigorraren ordeztu, gizartearen aldeko lanak egin beharko dituzte ikasleek, lehenetik ikastetxean egiten zuten ekimen bati babes ofiziala emanez. Elizondoko Zahar

Etxeko eta ikastetxeko zuzendaritza taldeak ere parte hartu zuten sinadura ekitaldian. Maite Ariztegi Etxepeteleku, Elizondoko Lanbide Eskolako zuzendariak adierazi duenez, «ikasurtean zehar ez dugu ikasleen kanporatze aunitz izaten, baina programa honekin bat egin nahi genuen, elkarbizitza lantzeko eginga dugun apustuarekin bat egiten duelako». Zahar Etxea kudeatzen duen Idea enpresako zuzendariak erran duenez, «erresidentzietan egiten dugun lana ezagutzera emateko baliagarria izanen da».



JUAN MARI ONDIKOL

Javier Urrutia 3. mailako golegile nagusi

Baztan Futbol Taldeak denboraldi ona egin du eta ongi eutsi dio hirugarren mailari. Gainera, ezusteko saria ere izan dute, Javier Urrutia aurrelaria kategoriako golegile nagusia izan baita, ondoan duen Tafallako Peña Sport taldeko Marcos Mendesekin batera. Hogeita zortzina gol sartu dituzte.



AINHOA LATASA

Errugbilari gaztetxoak Lekarozen

Nafarroako Kirol Jokoen baitan, zazpinakako errugbi txapelketa jokatu zuten maiatzaren 18an Lekarozen. 14 urtez beheitiko 220 haur etorri ziren, Tuterako Gigantes, Iruñeko La Unica Rugby taldea eta Iruña rugby club eta BRT Menditarrak taldeetako kategoria ezberdinetakoak.

Arotxa

Aroztegia 1890az geroztik

M. 650 53 20 73 · T. 948 58 14 18
31730 IRURITA
arotxa.taller@gmail.com
www.arotxataller.com

GARAJEKO ATEAK | **HÖRMANN** banatzaile ofiziala

TOLDOAK - ESTOREAK | Etxea-merkataritza-ostalaritza

Eguzkiaz
babestu
toldo batekin

Lekarozko ikasle ohien bilkura ekainaren 15ean

Urteko batzarra egiteaz gain, Ohorezko Presidente zen Miguel Angel Letamendia zena omenduko dute

TTIPI-TTAPA

Lekarozko kolegioko ikasleek urteko batzarra eginen dute ekainaren 15ean. 13:00etan eginen duten bilkuran, iazko akta irakurri eta, egoki bada, onartu ondotik, txosten ekonomikoa eta presidentearen txostena aztertuko dituzte. Zuzendaritza-batzordea berriro ondotik, eskari-galderen txanda izanen da. 14:30ean bazkaria izanen dute, lehen aldiz txokoan. Duela hilabete batzuk sutea izan zen txokoan eta, modu honetan, berriz ere inauguratzeko aukera izanen

dute. Izen-ematea antiguosalumnosdelecaroz@gmail.com helbide elektronikoan egin daiteke. 17:30ean omenaldia eskainiko diote urtetan elkarreko presidente eta gaur egun ohorezko presidente den Miguel Angel Letamendia zenari. Bere omenez oroigarria inauguratzeko dute eta meza izanen dute, Mario Izeta Bilboko gotzainaren eskutik. Gainera, Txokoko lorategian magnolia bat landatuko dute Letamendia gogoratzeko eta landare hau bedeinkatuko du gotzainak.

Baztango Kirol Taldeak ere bere eguna ospatuko du ekainaren 15ean

TTIPI-TTAPA

Denboraldi bikaina (senior taldeak lehen maila nazionalera igotzeko fasea jokatu du Bartzelonan) borobiltzeko BKT eskubalo taldeak besta eguna antolatu du ekainaren 15erako. Goizeko hamarretan Elizondoko kiroldegian eskuba-

loi partidak jokatuko dituzte eta bitartean, kanpoko frontoian jokoak, aurpegia margotzeko txokoak eta bertze hainbat ekitaldi izanen dituzte. 14:00etan bazkaria izanen dute Kasino elkartearen eta txartelak salgai daude dagoneko.



JUAN MARI ONDIKOL

Minbiziaren kontrako jaialdi bikaina

Eguraldi txarrari aurre eginez ehundaka lagun bildu zituen Borobileko ertzetik jaialdiak Elizondoko Iriarte frontoian. Kaotiko, Hesian, Ze esatek!, Enkore, Xutik, Skabidean & the black birds, Bad Sound, Pleura eta Trikidantza taldeek bat egin zuten Lur aretoak antolatutako emanaldian.



UTZITAKO ARGAZKIA

Gartzaingo Asteburu Kulturala ederki

Gazteek antolatuta, asteburu kulturala ospatu zuten maiatzaren 18an eta 19an Gartzaingoan. Larunbatean, bertsoafaria izan zuten herriko elkartearen eta jende dezente bildu zen Sebastian Lizaso eta Iker Zubeldiaren doinu eta hitzen bueltan. Ortziralean, berriz, mus-txapelketa izan zuten.



BEROPEL
egurrezko pelletak
ECHEVESTE HNOS. SL

T. 948 637 232 • 618 264 654
31770 LESAKA (Nafarroa) • Fax 948 637 250
info@echevestehermanos.com
www.echevestehermanos.com





ES 025

sukaDeco
estudio cocina y baño



www.sukaldeco.com
IRURITA 948 580 666



Maiatzaren 11n Lesakan bildu ziren txirrindulari gaztetxoak. GARIKOITZ LARRABURU

Txirrindulari ttikiak bilduko dira igandean Iruritan

CC Baztandarra elkarteak aurten berreskuratu duen txirrindularitza eskolan 30 neska-mutiko ari dira

TTIPI-TTAPA

CC Baztandarra elkarteak txirrindularitza eskola berreskuratu du aurten. 30 neska-mutiko federatu dituzte. Ekainaren 2an Iruritan antolatu dute eskualdeko txirrindulari gaztetxoentzako topaketa. Igandean 11:00etan izanen dute hitzordua, eta probaren ondoren, ginkana ere egingen dute.

Konpetitzen ari diren txirrindulari gaztetxo batzuk bertze talde batzuen izenean ari dira: Lekarozko Joritz Barberena eta Beñat Barberena CC Villavés taldean; Iruritako Oier Ibañez eta Oihan Aleman

Saltoki taldean mendi bizikletan eta Iruritako Ivan Villoria Ermitagaña taldean, errepi-dean nahiz mendi bizikletan.

Maiatzaren 18an, Tafallan egin zen errepedeko lasterketan garaipena lortu zuen Ivan Villoria eta zazpigarren izan zen Joritz Barberena. Biharamunean, mendi bizikletan, seigarren izan zen Villoria Deikaztelun. Bosgarren izan zen Oihan Aleman eta gisa horretara, Nafarroako Kirol Jokoetako sailkapen orokorrean duen laugarren postua sendotu zuen. Oier Ibañez hamahirugarren da.



ARGAZKIA ETA TESTUA: NEREA MORTALENA

Arraiozko Arizti elkarteko mus txapelketa

18 bikotek parte hartu dute Arizti elkarteko mus txapelketan. Angel Otxandorena eta Jose Miguel Goñi suertatu dira txapeldun; Agustin Meoki eta Manuel Goñi bigarren; Aitor Zubigarai eta Mikel Organbide hirugarren; eta Xabier Karrikaburu eta Jose Antonio Bengoetxea laugarren.



ARGAZKIA ETA TESTUA: NEREA MORTALENA

Lehen jaunartzea Arraiozen

Maiatzaren 19an Jaunartzeak izan zituzten Arraiozko elizan. Bortz neska-mutikok egin zuten aurten lehen jaunartzea, ospakizun eder eta dotore batean. Argazkian ezkerretik eskuinera: Gaizka Zubieta, Olaia Gamio, Uxue Viela, Ane Iturralde eta Igor Viela.

BRIKO BAZTAN, SL

Bainuontziaren lekuan duxaontzia jartzea

Pinturak
Fatxadak
Pladurra

Egur lakadura eta bernizadura
Birgaitzeak eta obra berriak
Lur-mugimenduak

T. 608 016 052
San Andres, 66 - NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

asegi asesorías 

Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 • F. 948 580 648

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 • F. 948 451 304



Miguel Angel Sagaseta (makilarekin), aitortza jasotzerakoan. JUAN MARI ONDIKOL

Sagaseta omendudute Mutildantza Egunean Arizkun

Euskal Herriko eta Biarnoko dantzariak bildu ziren maiatzaren 18an eta Euskal Dantzarien Biltzarrak egin zion aitortza

TTIPI-TTAPA

Piriniotatik Dantzan – Mutildantza Eguna 2019 ospatu zuten maiatzaren 18an Arizkun. Jo ala Jo Kultur Taldeak antolatu zuen ospakizuna, Nafarroako Dantzarien Biltzarraren eta Euskal Dantzarien Biltzarraren eta Nafarroako Gobernuaren, Baztango Udaren eta Arizkongo Herriaren babesarekin.

Ludaideko Bolantak, Beskoitzeko Oinak Arin, Zalgizeko dantzariak, Sent Per de Lerengo dantzariak eta Baztandarrak dantza eskolak parte hartu zuten jaialdian. Ba-

koitza bere berezitasunekin, baina denek zuten zerbait amankomunean: zirkulua. Hasiera batean Arizkongo plazan egitekoa baldin bazen ere, azkenean pilotalekuan egin behar izan zuten.

Erakustaldiaren ondotik, eguerdian Miguel Angel Sagasetari aitortza egin zion Euskal

ZIRKULUA DA PIRINIOETAKO DANTZA HAUEN OINARRIA

Dantzarien Biltzarrak eta ondotik, Mutildantza herrikoiek eskaini zituzten. Arratsaldean Soka-dantza eta Jauzi herrikoiek dantzatu zituzten.

Aitortza Sagasetari

Euskal Dantzarien Biltzarrak Miguel Angel Sagasetari aitortza eskaini zion, urte luzez, Euskal Herriko herri aunitzetan barrena ibiliz, dantzen inguruko ikerketa sakona egiteagatik. Iturenen 1941ean sortua, piano ikasketak bi urtez egin ondotik, bere gisara ikasi zuen txistua jotzen. Dantzan ere aritu zen, eta bere jarduna ez zuen eten apaiztegiaren. 1965ean apaiztu zen eta hainbat herritan aritu da lanean, Luzaiden, Leitza, Etxarrin eta, gaur egun, Urdiainen. Larunbatean, euskal makila eta oroigarri bat jaso zituen opari, eta eskerrak eman ondotik, kontent erran zuen lehen aldia zela berak ikertutako dantza guztiak leku berean dantzatzeko ikusten zutituen.

Pirinio mendebaldeko bi isurialdeetan bizirik mantentzen den dantza-sistema zahar honen oinarri koreografikoa eta dantzaren estruktura, akabailarik gabeko lerro teoriko batek mugatzen du, eredu gisa zirkulua duena. Sistema hau osatzen duten dantzak *Jauziak* edo *Mutxikoak* izenarekin ezagutzen dira Euskal Herriko iparraldean eta Luzaiden. Biarnon aldiz *Saut* izenez dira ezagunak, eta Baztanen Mutildantza izena hartzen dute.

Patricia Arteagaren erretratu erakusketa

Patricia Arteagaren erretratu erakusketa zabalik dago Arizkunenean Kultur Etxean maiatzaren 28tik ekainaren 23ra. Astelehenetik ortziralerara 17:30etik 20:30era, larunbatean 12:00etatik 14:00etara eta 17:30etik 20:00etara eta igandetan 12:00etatik 14:00etara.

BKTko Jone Uriarte lehen mailako jokalaria onena

Nafarroako Eskubaloi Federazioak 2018/2019 denboraldiari dagozkion sariak banatu ditu asteburuan Tafallan. Emakumezkoen Lehen Maila Nazionalako kirolari onenaren saria, Baztango Kirol Taldean ari den Jone Uriarte Jaimearena erratzuarrak jaso du.

Haurdunaldi eta hazkuntza tailerra maiatzaren 30ean

Benito Menni ospitaleak antolatuta, guraso eta hezitzaileendako haurdunaldi eta hazkuntza tailerra egingen dute maiatzaren 30ean, 16:30ean Arizkunenean. Jabier Molina pediatra, Ana Sala psikiatra eta Carmen Mendibil haur goiztiarren doktorea izanen dira.

MARMOLES SOULE
www.marmolessoule.com
 ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

LAPIDAK
 PANTEONAK
 KANPOSANTUAK
 HARRI LANAK
 ESKULTURAK

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua
 Dibortzioak, herentziak,
 alokairuak, alkoholemiak...
 T. 948 581 468 | M. 630 354 818
 Santiago, 59 2C ELIZONDO

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
 T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN, S.L.
 TALLER DE CANTERÍA

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE

Berroetako bestak ekainaren 7tik 10era ospatuko dituzte

Larunbatean, gazteek bazkaria egingen dute Aizkoan eta Tuterako dantzariak eta paella-txapelketa ere izanen dira

TTIPI-TTAPA

Otorduz, musikaz, txapelketez eta ikuskizunez hornitutako lau eguneko bestak izanen dituzte ekainaren 7tik 10era, ortziraletik astelehenera, Berroetan. Larunbatean eta astelehenean, egun osoan, puzgarriak izanen dituzte.

Ekainaren 7a, ortziralea

20:00etan lehertuko dute bes-tei hasiera emanen dien txupinazoa eta segidan, 20:30ean, txopoa goratu eta mutildantzak dantzatzeko aukera izanen dute. 21:30ean mahai-inguruan bilduko dira eta, ohi bezala, Baztan-zopak dastatuko dituzte. Zintzurak busti eta kantu zaharrak kantatuko dituzte. 00:00etan hasita dantzaldia izanen dute, Gabezin taldearen eskutik. Gantorri autobus-zerbitzua izanen da.

Ekainaren 8a, larunbata

14:00etan gazteen bazkaria egingen dute Aizkoan. 17:30ean txokolate beroa eskainiko dute eta ordubeteren buruan, 18:30ean, Tuterako dantzarien saioa izanen dute. 20:00etan paella-txapelketa egingen dute

eta 21:00etan afarian bilduko dira. Gaureratik aitzinera Beñatek girotuko du herria.

Ekainaren 9a, igandea

10:00etan erraldi eta gaiteroek mugiaraziko dituzte herritarrak. 11:00etan meza izanen dute, eta ondotik luntxa. Arratsaldean, 18:00etan, Mikel Lasartek motozerra-erakustaldia eskainiko du. Segidan, 19:00etan, Beñaten eskutik, dantzaldia izanen dute eta eguna akitzeko 21:00etan zingar-jatea egingen dute.

Ekainaren 10a, astelehena

11:00etan bizikleta-itzulia egingen dute eta eguerdian, 12:00etan, mahai-jokoak izanen dira. Izan ere, mus eta partxis txapelketak jokatu dituzte. 14:00etan zikiri-jatean bilduko dira. Hauspolariek taldearen erritmora mugitzeko aukera izanen dute. 18:00etan herritarren arteko jokoak izanen dituzte eta 21:30ean zingarra janez eta kantari gozatuko dituzte bes-tetako azken orduak, 00:00etan *Gaixoa Ni* kantatuz akituko baitira.



Berroeta-Saioa-Berroeta lasterketako podioa. MAIALEN IANTZI

Iñaki Mihura eta Lurdes Oiartzabal nagusi Berroetako mendi maratoi erdian

MAIALEN IANTZI

Berroeta-Saioa-Berroeta Mendi Maratoi Erdiaren 3. edizioaren burutu zen maiatzaren 19an Berroetan. Eguraldia kontra izan arren, izena eman zuten 70 korrikalaritatik 62k hartu zuten parte. Beraz, baldintza klimatikoak gora-behera, erabat arrakastatsua izan zen. Korrikalariek oztopo guztiak gainditu eta helmugara iritsi ziren herriko plazan bildu zen jende arteko txalo zaparradaren laguntzarekin. Arraiozko Iñaki Mihura izan zen bizkorrena proba burutzen (1.48.25), bigarrena Iñaki Korta azpeitiarra (1.54.48) eta hirugarrena Azpilkuetako Unai Barazabal (1.55.01). Bi ordu baino guttiago behar izan zuten bakarrak izan ziren.

Parte hartu zuten bederatzi nesken artean lehena, Lezoko Lurdes Oiartzabal izan zen (2.14.35); Urruñako Maud

Combarieu bigarren (2.19.51) eta Zizur Nagusiko Maria Loizu hirugarren (2.22.02).

Berroetako herriak eta antolakuntzak eskerrak eman nahi dizkie parte hartu zutenei, egun kaskarra izan arren, goiz ikaragarria izan zelako.

III. BERROETAKO MME

ESKUALDEKOAK

1. Iñaki Mihura-Arraioz	1.48.25
3. Unai Barazabal-Azpilkueta	1.55.01
9. Migel Angel Iñarrea-Irurita	2.06.14
10. Dani Etxeberria-Arizkun	2.06.44
12. Asier Gamio-Berroeta	2.07.45
14. Asier Irazoki-Bera	2.09.37
16. Ina Lasaga-Bera	2.12.03
17. Gabon Gamio-Aniz	2.13.03
18. Joseba Oskariz-Lekaroz	2.13.43
23. Beñat Mitxelena-Arantza	2.15.51
30. Jone Zelaieta-Bera (4)	2.22.07
31. Joxe Iturzaeta-Arizkun	2.22.51
35. Aitor Azkarate-Aniz	2.27.16
38. Xanti Lertxundi-Irurita	2.35.55
40. Xuban Lakosta-Aniz	2.39.12
41. Xanti Dendarieta-Erratzu	2.39.44
45. Maider Irazoki-Donetz(5)	2.47.12



Gan den urtean, Aizkoan egindako gazte bazkaria eta igandean plazan izandako Buhaminak taldearen kantaldia. MAIALEN IANTZI



Herritarrek 32 urtez Herri Urrats lagundu dute

Azken urteetan 800 kilo zikiro erretzen zituzten. Aurten urruñarrei pasa diete ardura

MARIFA ETA KORO

Zugarramurdiarrak 32 urtez aritu dira Herri Urratsen laguntzen, zikiro-jatea prestatuz. Hasieran 600 kilo haragi erretzen zituzten. Ondotik, hainbat urtez 1.000 kilo ere erre izan zituzten, eta azkeneko hauetan 800 kilo inguru prestatzen zituzten. Horrekin batera, aipatzekoa da, gaur egun jateko eskaintza haundia dagoela Herri Urratsen. Bertzeak bertze, paella, sagarnotegia, sardinak, taloak, pintxoak... eskaintzen dira..



Lan handia egin izan dute.

orduko arratsaldeko lauakedo izaten dituzte.

Gibeleetik lan handia

Ez ikusian ere, lan hori gogorra da, eta bi egun behar izaten dituzte: bezperan lakurat joaten dira haragia han berean prestatzeko; eta biharamunean, goizean goiz, sua piztu behar izaten dute. Lana finitu

Urruñarrei lekukoa

Orain arte gogotik aritu dira zugarramurdiarrak, baina hainbertze urteren buruan, aurten lekukoa Iparraldekoiei pasatu diete, Urruñarrei hain zuzen, eta aurtengo zikiroa beraiek prestatu dute.



MARIFA ETA KORO

Harremana sendotzen

Herrietako adinduen bizitzari bizigarriak ematen segitzen du Harremanak jubiloteka elkarteak. Joan den maiatzaren 15ean Ainhoarat joan ziren, eta hango jubilotekakoekin bildu ziren. Topaketa hori profitatuz, Amaiur Unzuetak egin nahi duen Xaretako landare ikerketa aurkeztu zien.



MARIFA ETA KORO

Herritarrek laugarren Herri Haitadan

Euriari aitzin eginez, giro politean joan zen aurtengo Herri Haitada. Boteluz eta sukaldeko probak irabazirik, gainerakoak eskasago joan ziren. Hala ere, herritarrek laugarren postuan gelditu ziren, joan den urtetik postu bat hobetuz.

Giltzak eta aginteak
AUTOA - MOTOA - KAMIOIA
Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu



IBARGOYEN
SUMINISTROS CARROCEROS



www.ibargoyen.net

☎ 943 616 587

Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN



Arzallus eta Artetxe izan ziren hizlari. MINTZOLA.EUS

Bertsolamintza jardunaldiaren mintzaldia egin dute

Amets Arzallus eta Miren Artetxe izan ziren bigarren hitzordu horretako mintzalariak

PIERRE BASTRES

Bertsolaritzari buruzko gogoetak egiteko, jorrazteko eta partekatzeko asmoz sortu zen Bertsolamintza, jadanik 1994, 2002, 2005 eta 2011 urteetan muntatu zutena.

Aurtengoan, borts zati iraganen dira, lehenbizikoa maiatzaren 2an izan zen Iruñean, eta azkena eraiaroaren 1ean, heldu den larunbatean, izanen da Amasa-Villabonan. Goiz osoko egitaraua antolatu dute eta hainbat bertsolarik parte hartuko dute: Beñat Gaztelumendi, Amets Arzallus, Sustrai Colina, Maite Berriozabal, Amaia Agirre, Maddi Sarasua, Miren Artetxe, Asier Galarza eta Eli Pagola, Xabier Aierdi, Ainhoa Aizpurua, Jone Uria...

Artzallus eta Artetxe

Senperen maiatzaren 16an

Bigarrena Senperen iragan zen maiatzaren 16an, Larraldean hain zuzen. Bi aipagai aditu ahal izan zituzten entzuleek: *Zeri kantatzen diogu eta zeri kantatu nahiko genioke? Zein da gaur egungo errealitatea?*, Amets Arzallusekin, eta *Hizkuntza ideologiak ber-*

tsolaritzan, berriz, Miren Artetxerekin.

Alde batetik Arzallusek haren iduriko bertsolaritzaren bete-beharrak zoin diren adierazi zituen. Bertzalde, segurtamen guttiko garai hartan, nola kantatzea zeri buruz kantatzea bezain garrantzitsua bilakatu dela erakutsi zuen.

Ondotik, *Hizkuntza ideologiak bertsolaritzan* aipabideaz mintzatu zen Artetxe. Gai hori ikertzen du Hendaia-koak (ikertzaile eta erakasle da lanbidez), eta horri esker *Hausnartu Euskal Soziolinguistika Sari*en bigarren saria eskuratu zuen gan den urtean. Lehenik ohar-tarazi du alde batetik gazte eskualdunen erdia mintzatzailerik berriak direla, etxean ez dute eskuara aditzen. Bertze aldetik bertsu zale gehienak, aldiz, eskualdun zaharrak direla. Egoera bitxi huntarik sortzen diren diskurtsoak adierazi eta zehaztu ditu. Gainerat, mintzatzailerik berrien legitimizazioaz aritu izan da: bertsolaritzan sortzen diren harremanek hiztun berrien legitimizazioarendako dituzten ondorioei begira.



Joan den urtean baino jende gehiago bildu da aurtun. PIERRES BASTRES

Sekulako arrakasta izan du ikastolen aldeko bestak

PIERRE BASTRES

Milaka euskaltzalek bat egin zuten maiatzaren 12an Senperen LK lelopean ospatu zuten Herri Urratsen 36. edizioan. Manex Erdozainzi Etxart Kolegioa eta Bernat Etxepare Lizeoa berritzeko erabiliko dute lortutako dirua.

Balorazioa egin dute

Maiatzaren 20an aurtengo Herri Urratseko goiti-beheitiak aztertu dituzte bulegokoek. Ekiolako Emile Negelua arduradunetako bat da eta ikusi duenez «arrakastatsua izan duk aurtengoa, ageri zuan.

Eguzkia lagun dugunean erre-xagoa duk, nolaz ez» adierazi du. Egitaraua aipatzen denean, hona zer dion Emile Negeluak «Badik urte zonbait berrikuntzarik entseatzen sartzen egitarauan, aurtun holakorik ez diagu egin. Izan ere, betiereko animatzailea bertze lan bategaratan gan zaiguk. Ihintza Bidart Baigorriarrak ordezkatu dik berriki, eta biziki ongi ari izan duk! Honenbertzez zerbaiten aldatzeko ez zuan garaia. Hel-du diren urteendako, ordea, ezin diat pitxik salatu, baina gogoetak egiten ari gaituk, eta egitasmo ederrik diagu!».

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN

Jarrai gaitzazu!

facebook

www.facebook.com/ttipi.ttapa

Sara Oinez mendi ibilaldia ekainaren 16an egingen da

Har Hitza Elkarteak 25 kilometroko ibilbidea eta 1.350 metroko malda positiboa duen itzulia prestatu du

TTIPI-TTAPA

Euskaraz eginez lelopean, aurretik hirugarren aldiz, Sara Oinez mendi ibilaldia prestatu du Har Hitza Elkarteak. Ekainaren 16an egin dute hitzordua, eta 25 kilometroko luzera eta 1.350 metroko malda positiboa duen itzulia prestatu dute.

Mendizaleak 07:00etatik 08:00etara abiatuko dira kiroldegitik. Aitzinetik izena toki horretan eman beharko dute, 06:30etik 08:00etara, hamar euro ordainduta. Ibilbidean, Irauldiko eta Olhaingo lepoetatik, Lizuniagatik, Urdakoi-



Mendizaleak Sara Oinez ibilaldian.

tzetik, Ibantelitik, Lizarietatik, Nabarlatsetik, Larreatik, Ukulumetik eta Plaxidoin bordatik pasako dira eta jatekoa eta edatekoa lau puntutan izanen dute.

Hegobusen eskolako zerbitzuan izena emateko epea zabalik da

TTIPI-TTAPA

2019/2020 ikasturteari begira, Hegobus zerbitzuaren eskolako lineaz baliatu nahi duten erabiltzaileek dagoeneko izena emateko epea zabalik dute. Uztailaren 21era arte izanen dute horretarako aukera.

Bi kasutan eman beharko da izena: alde batetik, herrian barna ibiltzen den zerbitzurako, hau da, ikasleak San Joseph eskolara, Olhain ikastolara eta eskolako publikora eramaten dituen zerbitzurako; eta bertzetik, Sarako ikasleak bertze herrietako ikastetxeetara eramaten dituen zerbitzuan parte hartzeko.

Izen-ematea

Izena www.hegobus.com atarian eman daiteke, edo bertzela, Herriko Etxean eskura daitekeen inprimakia bete eta

Euskal Hirigune Elkargoko Garraio Sarearen Biriaturako bulegora postaz igorritik (*Transdev, Maritxu industrialdea, 64700 Biriatu*).

2016tik martxan

2016ko irailaren 1az geroztik dago martxan Hegobus zerbitzua, TUPB konpainiak eta Euskal Hirigune Elkargoak lankidetzaz hitzarmena sinatu zutenetik. Hirigune Elkargoak lau milioi euroko inbertsioa egin zuen garraio-sarea antolatzeko. 2024ra arte Transdev enpresak eskainiko du zerbitzua, 2016an zortzi urterako kontratua lortu zutelako. Eskolako garraio-zerbitzuaz gain, Elkargoak herriz herri dabilen lineak eta eskaera bidezko eta mugikortasun urrikoentzako garraio-zerbitzua eskaintzen du.

Kantaldiak, mendi bizikleta proba, bertsoak eta gehiago ondoko egunetan

TTIPI-TTAPA

Kultur eskaintza zabala izanen da ondoko egun eta asteetan. Ortzirale honetan, maiatzak 31, Saiberri abesbatzak kantaldia eskainiko du elizan, 21:00etan. Sartzea borts euro izanen da eta 14 urtetik beheitikoe urririk izanen dute. Larunbatean, berriz, Amaia Hennebutte Biarritzeko idazlea kontu kontari ariko da eta horrez gain, Neskatxena taldeak euskal kanta kantatuko ditu 20:00etan elizan.

Igandean, ekainak 2, ikastolak antolatu mendi bizikleta

ta proba egingen da, 08:30ean plazatik abiatuta.

Heldu denen astean gehiago

Ekainaren 5ean, Lokarri abesbatzaren eskutik kantaldia izanen da elizan, 21:30ean. Sartzea hamar euro ordaindu beharko da eta 12 urtez beheitikoe urririk izanen dute.

Ekainaren 8an, bertzalde, Euskal Herriko Eskolartekoaren bat-bateko finala jokatu da Lur Berrigelan, 11:00etan. (Xehetasunak 10. orrialdean). Ekainaren 9an, berriz, Olhain ikastolakoek besta eguna dute.



Joan den urtean jende ainitz bildu zen ikastolaren bestan. UTZITAKOA

Sagarnotegiko bazkariaren bueltan besta eguna antolatu du Olhain Ikastolak

TTIPI-TTAPA

Sagarnotegiko bazkaria antolatu dute aurten ere Olhain Ikastolakoek. Ekainaren 9an izanen da eta egun osorako ekitaldiak prestatu dituzte. 11:30ean ikastolatik abiatuta kalejira egingen dute Saran'garekin. 12:30ean kupelak ireki dituzte eta sagarinoa nahi adina dastatzeko aukera izanen da, basoa hiru euro ordainduta. 13:30ean bazkaria egingen dute eta giroa alaitzeaz Saran'ga arduratuko da. 14:30ean haurrentzako jokoak eta puzgarriak izanen dira eta 17:00etatik goiti DJ Bull ariko da.

Langile bila ikastolan

Ikastolan langile euskaldun baten bila ari dira. Irailetik uztail hastapenerako kontratua eskainiko dute, astean 24 oren (lau egun). Ama ikastolan irakasleei laguntzea izanen da bere egitekoa, baita zaintza-lanak egitea ere.

Interesatuak gomendiozko gutuna eta curriculumak ekainaren 21a aitzin bidali beharko dute olhainikastola@gmail.com helbidera edo edo postaz *Olhain Ikastola, Mendi Bixta, 64310 Sara* helbidera. Elkarrizketak uztailaren 6an egingen dituzte, goizez.



Podiumean, ibilbide luzeko eta laburreko bizkorrenak. FELIX LOIARTE

212 korrikalarik osatu dute VI. Goizutrail mendi lasterketa

Berako korrikalariak marka berri bat ezarri zuen eta Xabier Zubieta Saria ere jaso zuen, 252 korrikalarik bukatu zuten lasterketaren hirugarren edizioan

TTIPI-TTAPA GOIZUETA

Maiatzaren 11n burutu zen Goizutrail mendi lasterketaren seigarren edizioa. Bi ibilbide izan zituzten aukeran korrikalariak, 25 kilometrokoa eta 10 kilometrokoa eta errelebo-ka egiteko aukera ere izan zuten lehen aldiz. Denera 212 korrikalarik bukatu zituzten lasterketak, 99k luzeena, 83 laburrena eta 15 bikotek errelebo-ka. Luzeenean Altzoko Iñaki Olanok 2 ordu, 10 mi-

nutu eta 25 segundo behar izan zituen lasterketa burutzeko. Podiuma osatu zuten bertze bi korrikalariak, Azpeitiko Xabat Manzisidor (2.12.09) eta Urnietako Xuban Ezeiza Zapiain (2.14.56) izan ziren. Eskualdeko lehen korrikalaria Hodei Lujanbio goizuetarra izan zen, zazpigarren izan baitzen (2.19.06).

Emakumezkoetan, Usurbilgo Rosa Uribe 2 ordu, 51 minutu eta segundo bat behar

izan zituen garaipena lortzeko (45. izan zen sailkapen orokorrean), Elgetako Iratxe Alonso bigarren izan zen (3.17.23) eta Nerea Arriaga oriotarra hirugarren (3.24.29).

Ibilbidelaburrean, Andoaingo Aritz Mujikak 50 minutu eta 57 segundo behar izan zituen irabazteko, bigarren izan zen Jokin Arretxea narbartearra (51.22) eta hirugarren Nacho Lopez hondarribiarra (52.28). Emakumezkoetan,

VI. GOIZUTRAIL

ESKUALDEKOAK IBILBIDE LUZEA

7. Hodei Lujanbio-Goizueta	2.19.06
20. Unai Elizagoien-Bera	2.36.46
22. Gorka Bermejo-Leitza	2.39.16
26. J.Ander Zabaleta-Leitza	2.43.54
27. Jon Zabaleta-Leitza	2.43.55
32. Beñat Saralegi-Leitza	2.46.49
50. Iñigo Arrieta-Sunbilla	2.55.15
85. Xabier Portu-Leitza	3.17.25

ESKUALDEKOAK IBILBIDE MOTZA

2. Jokin Arretxea-Narbart	51.22
15. Jon Iparragirre-Bera	1.00.46
18. Ane Elzaurdia-Bera (1)	1:02:53
23. Mikel Elzaurdia-Bera	1.04.22
28. Zigor Sagardui-Goizueta	1.05.35
37. Iñigo Iparragirre-Bera	1.07.23
47. Ainhoa Etxegarai-Bera (7)	1.10.08
53. Andoni Larralde-Goizueta	1.12.14
56. Aritz Zubiri-Goizueta	1.13.11
57. Maialen Apeztebea-Goiz.(10)	1.13.14
61. Iker Apeztebea-Goizueta	1.15.38

Berako Ane Elzaurdia nagusitu zen (1.02.53), Hernaniko Almudena Carvajal bigarren (1.05.04) eta Donostiako Leticia Ainhoa Arrillaga hirugarren (1.06.11).

Bikoteka, Jon Labaka urnietarra eta Mikel Leal irundarra izan ziren bizkorrenak (2.34.38). Uharteko Juan Mari Negredo eta Maider Frailek (2.39.28) eta Goizuetako Iñaki eta Patxi Etxeberria anaiek (2.40.00) osatu zuten podiuma. Egoitz Zubiri goizuetarra eta Beñat Lekuona zortzigarren izan ziren (2.52.41), Doneztebeko Iker eta Maider Irazoki anai-arrebak bederatzigarren (2.54.48), Leitza Aitor Artoila eta Miren Otermin hamargarren (2.56.32) eta Aritz Loiarate eta Mikel Perurena goizuetarrak hamalagarren (3.20.43).

Lesakako I. Mendi Lasterketa ekainaren 15ean antolatu du Beti Gaztek

TTIPI-TTAPA LESAKA

Ekainaren 15ean egingen dute Beti Gazte elkarteak antolatutako Lesakako I. Mendi Lasterketa. Larunbatean 16:00etan abiatuko da 14 kilometro luze eta 900 metroko desnibela duen lasterketa nagusia Plaza Zaharretik eta hamar minutu beranduago 13 eta 17 urte bitarteko gazteei zuzendutako

lasterketa, 7 kilometro luze eta 300 metroko desnibela duena. Ibilbide luzekoak Frain (455 metro) eta Unanue (650 metro) igo beharko dituzte plazan helmugaratu baino lehen eta gazteek, Frainera igo eta jautsiko dira zuzenean herrira.

Izen-ematea ekainaren 14ra bitarte egin daiteke [www.he-](http://www.he-rrikrosa.eus)



Beti Gazte Lasterka taldeko kide bat.

rrikrosa.eus webgunean. Ibilbide luzerako 16 euro ordaindu beharko da (13 euro Beti Gazteko bazkideek) eta egunean bertan eginez gero, 20 euro denentzat. Ibilbide laburrerako 7 euro ordaindu beharko dute, 10 euro probaren egunean. Bi probak kontuan hartuta, gehienez 250 kirolarik parte har dezakete. Lehenbiziko 3 gizonezko eta emakumeen 90, 60 eta 30 euroko saria izanen dute, gazta eta Beti Gazteko zapiak gainera.



XXIX. Ezkurra Memorialeko finalistak, antolatzaileak, sariak eman zituzten Barriola eta Ezkurrekin. JOSE MARI TELLETXEA

Josetxo Ezkurraren omenez finalak jokatu dituzte

Senior mailak Irurtzongo Aimar Lansalot suertatu zen txapelkun, Getariko Gorka Aristiri irabazita

TTPI-TTAPA DONEZTEBE
Doneztebeko Erreka elkarteak
hogeita bederatzigarren aldiz

antolatutako Josetxo Ezkurra
Memoriala eskuz banakako
pilota txapelketako finalak

jokatu zituzten maiatzaren 11n Donezteben. Senior mailan, Irurtzongo Aimar Lansalot izan zen txapelkun. Sari banaketan, Juana Zunzarren, Josetxo Ezkurra zenaren alarguna, Koteto Ezkurra semea eta Abel Barriola pilotari ohia izan ziren.

Benjaminak: Jurgi Landa (Lapke), 18 - Eñaut Iturain (Eple), 8.

Alebinak: Arkaitz Murua (Intxurre), 18 - Iker Izagirre (Elgoibar), 12.

Infantilak: Beñat Apezetxea (Erreka), 11 - Aratz Otaegi (Tzapagain), 18.

Kadeteak: Iker Egiguren (Ilunpe), 16 - Xabier Naldaiz (Lapke), 18.

Jubenilak: Beñat Senar (Lapke), 18 - Altuna (Tolosa), 13.

Seniorrak: Gorka Aristi (Getaria), 8 - Aimar Lansalot (Irurtzun), 18.

Errekako pilotariak jokatu-tako lau eta erdiko txapelketako finalak, berriz, bezperan jokatu zituzten. Hauek izan ziren finalaketako emaitzak:

Aurrebenjaminak B: Oier Errandonea, 6 - Ekaitz Mada-riaga, 18.

Aurrebenjaminak A: Jokin Mariezkurrena, 18 - Unai Oteiza, 16.

Benjaminak: Iker Anzizar, 18 - Mikel Ezkurra, 11.

Alebinak B: Amets Jauregi, 17 - Mattin Zelaia, 18.

Alebinak A: Mattin Agesta, 18 - Mikel Telletxea, 14.

Infantilak B: Aritz Mariezkurrena, 18 - Patxi Oartzabal, 16.

Kadeteak B: Mikel Izagirre, 18 - Erik Garcia, 16.

Kadeteak A: Mikel Mikelarena, 18 - Joseba Telletxea, 5.

Jubenilak: Xabier Telletxea, 7 - Patxi Loiarte, 18.



UTZITAKO ARGAZKIA

22 emakume 3.800 kiloko harriarekin

Emarri taldeko 22 emakumek 3.800 kiloko Usurbilgo Harri Handiarekin hiru plaza pasa egin zituzten ordu erdian. Lehen aldia da emakumez bakarrik osatutako talde batek harri hori mugitzen duela. Horien artean zeuden, Lesakako Estitxu Almandoz Maia eta Ainhua Alzugarai Almandoz.



UTZITAKO ARGAZKIA

BKTK igoera fasea jokatu du Katalunian

Baztango BKT eskubaloi taldeak lehen maila nazionalera igotzeko fasea jokatu zuen Bartzelonan maiatzaren 10etik 12ra. Ainhua Astiz entrenatzaileak aipatu digunez, «hiru partidak banaz bertze dozena bat goleko aldearekin galdu ditugun, arras kontent bueltatu gara».

MAIATZAK 30 - EKAINAK 13

INFORMAZIOA BIDALETZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

HITZALDIAK

DONEZTEBE

'Bazkaria jatea baino gehiago denean' hitzaldia

Askin haur eskolan, maiatzaren 31n, 16:30etan.

ETXALAR

Kalamuaren eragina hizpide

Ekainaren 3an, 18:00etan.

LEITZA

Agosti Xahori buruz

Liburutegian, ekainaren 6an, 19:00etan.

Gaztetxeen arteko mahai-ingurua

Atekabeltzen, ekainaren 8an, 11:00etan.

BERA

Kalamuen eraginaz solasaldia

Beralandetan, ekainaren 7an, 17:00etan.

Euskaraldiari buruzko bilera

Beralandetan, ekainaren 6an, 19:00etan.

GOIZUETA

Artikutzako balio naturala

Ganbaran, ekainaren 8an, 11:00etan.

Goizukoop kooperatibaren urteko batzarra

Jangelan, ekainaren 15ean, 11:00etan.

IKUSKIZUNAK

LEITZA

'Aralar. Mundua leku den lurra' dokumentala

Aurreran, maiatzaren 30ean, 19:30etan.

'Sorgina txirulinak youtuber izan nahi du' ipuin-kontaketa

Eskolan, ekainaren 1ean,



ARTXIBOKOA

ETXALAR Gasna eta artisau feria

Eskulangileen erakusketa, salmenta postuak, trikitilariak, bazkaria...
Ekainaren 1ean.

13:00etan.

Tor magoa

Eskolan, ekainaren 8an, 17:00etan.

Irribanda

Kiroldegian, ekainaren 9an, 18:00etan.

DONEZTEBE

'Nafardeath' filma

Zineman, ekainaren 8an, 19:30etan.

TAILERRAK

ELIZONDO

Haurdunaldi eta hazkuntza tailerra

Javier Molinaren, Ana Salaren eta Carmen Mendibilen eskutik.
Arizkunenean, maiatzaren 30ean, 16:30etan.

LEITZA

'Musika estiloak ezagutu'

Eskolan, ekainaren 1ean, 11:00etan.

Haur Hezkuntzako tailerrak

Atekabeltz gaztetxean, ekainaren 1ean, 18:30etan hasita.

ITUREN

Adimen emozionala langai

Abarun aterpean, ekainaren 15ean 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara eta 16an (goizez).

LEHIAKETAK

BERA

Bestetarako azal-lehiaketa

Maiatzaren 31 arte.

LEITZA

VIII. film labur lehiaketa

Maiatzaren 31 arte.

KIROLA

IRURITA

Herriarteko txirrindulari gazteen topaketa

Ekainaren 2an.

BERA

Herriarteko txirrindulari gazteen topaketa

Ekainaren 15ean.

LESAKA

Mendi Lasterketa

Ekainaren 15ean.

SARA

Mendi-ibilaldia

Ekainaren 16an.

KONTZERTUA

SUNBILLA

Malerreka Kantuz

Plazatik abiatuta, ekainaren 1ean, 12:00etan.

SARA

Lokarri abesbatza

Elizan, ekainaren 5ean, 21:30etan.

LEITZA

Jaramonik ez eta Sustrai berriak taldeak

Atekabeltzen, ekainaren 8an, 23:00etan.

LESAKA

Dama Beltzak

Ekainaren 8an.

GOIZUETA

Umore Ona abesbatzaren kontzertu ibiltaria

Plazatik abiatuta, ekainaren 9an, eguerdian.

ELIZONDO

Musika eskolako kontzertua

Zahar etxean, ekainaren 11n, 17:30etan.

OSPAKIZUNAK

DONEZTEBE

Erreka elkartearen eguna

Ekainaren 1ean.



UTZITAKOA

ESKUALDEA Txirrindulari gazteen topaketa

2005etik aitzinera jaiotakoendako.
Ekainaren 2an Iruritan; 15ean Beran; eta 30ean Donezteben.

Familien Eguna

Bazkaria eta haurrendako jolasak.
Eskolan, ekainaren 8an.

GOIZUETA

Txakolin-dastaketa
Ekainaren 2an.

LEITZA

41. Eskulangintza Azoka
Plazan, ekainaren 2an.

IGANTZI

Kankailuen topaketa
Ekainaren 2an.

ZUBIETA

Oritzako besta
Ekainaren 8an.

OIEREGI

Munduko Ingurumen Eguna
Bertizen, ekainaren 8an.

SARA

Eskolarteko bertso txapelketaren finala
Trinketean, ekainaren 8an, 11:00etan.

Sagarnotegiko bazkaria

Olhain ikastolaren eskutik.
Ekainaren 9an.

ITUREN

Trinitate Eguna
Ekainaren 16an.

BESTAK

BERROETA

Herriko bestak
Egitarauari buruzko xehetasunak 38.orrialdean.
Ekainaren 7tik 10era bitarte.

AZOKAK

ZUGARRAMURDI

Seilaru hustea
Eliza inguruan, ekainaren 8an, goizez.

ETXALAR

Gasna eta artisau feria
Bezperan III. Artzain Zakur lehiaketa.
Ekainaren 1ean.

Nire aukera

«Trinitate Egunean Mendaurrera familian joaten gara»

UXOA ELIZALDE ARRATXEA ZUBIETAKO GAZTEA

«Hogeita lau urteko gazte alaia eta lotsati samarra» da Uxo Elizalde. Arren pasa izan ditu haurtzaro eta gaztaroko astegunak; asteburuak, berriz, Zubietan. Dena dela, bere burua zubietartzat du: «Arre ikasketekin loturiko eremua izan da niretako, Zubietan lagunez eta naturaz gozatzekoa». Herriak «askatasuna» eman dio: «karrikara ateratzeko mugatuagoak egon gara Arren eta nahi edo ez hizkuntzak ere eragina izan du nigan. Euskaraz mintzatuz erosoago sentitzen naiz, gazteleraz antzerkia egiten ari banintz bezala...». Motxila hartu eta herrirantz abiatzen ziren ostiral arratsaldeetako oroitzapena iltzatua du zubietar gazteak: «udako egun



beroetan euria hasi berri denean lurra botatzen duen usaina, bizikleta hartuta egiten nuen bueltaxka eta aste oso baten ondotik maindire hotzak...». Oraindik orain, «losa beroak lehen euri tantekin botatzen duen usainak ostiral ilunabarrak oroitarazten dizkit». Txikitako «ametsa egia bihurturik», gaur egun Zubietan bizi da:

«alabak eskolan hasi behar zuenean hartu genuen erabakia. Familia gisa independente izan nahi genuen eta alabari egonkortasuna eta lasaitasuna eskaini». Alde horretatik «gurasoei eskerrak» eman nahi izan dizkie: «haiek eman didate horretarako aukera». Zubietara jo aurretiko urteak «nahiko kaotikoak» izan dira berarendako: «alaba, ikasketak, lana, orain Arrera, bihar Urrozera eta etzi Zubietara...». Herriak eta bizitzak momentuan ematen dion «lasaitasunaz gozatzen» ari da orain, «mendi eta txoko ederrez inguratutik». Maite du herria, maite ditu mendiak. Aukera duen guztietan joateko aprobetxatzen du: «gogoko dut goititzean izaten dudan sentsazioa, haizeak jotzea, txoriak aditzea, baita lehertu beharrean sentitzea ere». Bakarrik zein lagunekin joatea maite du, eta, zentzu horretan, «balio aniztuna» dela esanien luke. Egun batetik bestera bada alderik. Trinitate Eguna, esaterako, berezia da: «familiakoekin goititzeko eguna da. Txikitatik joan izan naiz, guraso, izeba-osaba eta lehengusu-lehengusinekin». Aurten ere badu asmoa: «famieliarekin joanen naiz eta eguraldia kontran ez badugu alaba gurekin joanen da». Eta hortik lanera: «kontrako noranzkoan bizi bainaiz ni!» dio irriz.

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

ETXALAR. Borda salgai, bere lurra-
rekin. ☎661 12 15 40.

ERRENTAN EMATEKO

ELIZONDO. 65 m²ko pisua errentan
emateko. Elizondoko lanbide esko-
laren ondoan. ☎678 54 27 73.

LESAKA. Lagun batentzat logela bat
errentan emateko, urte osorako.
☎678 85 50 56.

IGANTZIKO BENTAK. Etxea errentan
emateko, terrazarekin eta lur ere-
muarekin. Irailetik ekainera. ☎450
euro. ☎617 34 75 28.

ERRENTAN HARTZEKO

LESAKA. Logela bateko edo biko
etxebizitza errentan hartzeko prest.
Hilabete gehienez 450 euro or-
daintzeko prest. ☎642 46 44 05.

GARAJEAK/LOKALAK

BERTZELAKOAK

BORTZIRIAK. Gauzak gordetzeko
bajera baten bila. ☎650 71 40 30.

LURRAK/ORUBEAK

SALGAI

ITUREN. 345 m²ko lur eremua salgai,
etxea egiteko prest dagoena. Ura,
gasa, argia eta saneamendua sartua.
Solairu bakarreko etxea egin daiteke.
☎678 85 50 56 / 948 63 78 62.

OIZ. Lur eremua salgai. ☎628 31
60 81.

ERRENTAN EMATEKO

BAZTANGOIZA. Ardi borda bat bere
lur eremuarekin errentan hartu nahi
dute. ☎663 59 17 76.

LANA

ESKAINTZAK

DANTXARINEA. Masporrenos-en
lan egiteko jendea behar dute. Kirol
artikulu eta arropa teknikoak saltzen
dituzte: goi-mendikoak, lasterkete-
takoak, kanpoko jardueretarako...
Interesatuak bidali curriculum:
info@masporrenos.net-era. Fran-
tsesa jakitea kontuan hartuko da.

DANTXARINEA. Mikelenborda os-
tatan zerbitzaria behar dute maia-
tzetik aurrera eguerdiko zerbitzuan.
☎690 38 81 34 / 948 59 90 45 /
info@mikelenborda.com.



744 484 361

ttipi-ttapa

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da
ARGAZKIAREKIN jarri nahi izanez gero **12 €**
Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Ttipi-Ttapak ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz
sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

BERA. Bidaia-agentzian langilea
behar dute, marka ezaguneko fran-
kizia. Bidali curriculumak: *jo-bera@
bthetravelbrand.com*.

IBARDIN ETA DANTXARINEKO
bentetan urte guztirako langile bila
dabiltza, harakin, zerbitzari, arropa
saltzaile, kutxazain eta dendan lan
egiteko. ☎626 24 73 31.

Kontxa hornitegiak langile bat behar
du hornitegian eta kamioiarekin ba-
naketan lan egiteko. Kamioia gida-
tzeko baimena eta ADRA izatea
eskatuko dute. ☎948 45 07 87.

BERA. Jatetxe batean asteburuetan
lan egiteko bi lagun behar dituzte,
fregaderan lan egiteko bat eta zer-
bitzatzeko bertzeta. ☎948 63 03 92
/ 650 00 68 87.

ETXALAR. Landagain eskolako jan-
tokian sukaldeko langileen lan-poltsa
osatu nahi dute. Interesatuak idatzi

*landagain.guraso.elkartea@gmail.
com*-era, ekainaren 30a baino lehen.

IRUN. Ile-apaindegi misto batean
astartetik larunbatera egun osoz
lan egiteko lehen mailako ofiziala
behar dugu. Berehala lanean haste-
ko. ☎605 70 30 59.

LESAKA. Kafetegi batean egun erdiz
aritzeko langilea behar dute. Intere-
satuek idatzi *m.evaogi@gmail.com*
helbidera.

ELIZONDO. Beatriz ongizate zen-
troan, arratsaldez lan egiteko langi-
lea behar dute, hobe dendan espe-
rientzia baldin badu. ☎618 41 10
05.

ANIMALIAK

SALGAI

Behi blondak, ernariak edo ara-
txearekin, salgai. ☎670 30 35 20.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra: 4,20
- 1.koa: 4,07
- 2.koa: 3,93

Urruxak: €/kg kanal

- Extra: 4,31
- 1.koa: 4,17
- 2.koa: 3,03

Oharra: prezioak 180-220
kg kanalean pisatzen duten
aretzeenak dira

Aretze ttikiak

(15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak: 170,00
- Idixkoak: 235,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 150,00
- Idixkoak: 170,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak:
3,32/3,42
- Zaldi-behorrak
1,93/2,10

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak:
6,70/7,30
- 8-10 kilokoak:
5,60/6,10

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo):
67 €

Zerri gizona: 1,360 €
Zerramak 0,670€ /kg/
bizirik

Datu iturria: Nafarroako
Gobernua (maiatzaren 10etik
17ra bitarteko prezioak)

LAN ESKAINTZA

MOBILIARIO Y
DECORACIÓN

AMETS

**Berako dendan lanean aritzeko
saltzailea behar dugu.**

**Altzarien arloan esperientziduna.
Ezinbertzekoa frantsesa jakitea.**

Bidali zure Curriculumak
amets@mueblesamets.com

**SANTESTEBAN
TAILERRAK**

DACIA LODGY STEPWAY 1.5 dci 110 CV
2015 urtekoa - 59.500 kilometroekin

CITROEN BERLINGO 1.6 HDI 90 CV
2008 urtekoa - 67.000 kilometroekin

www.talleressantesteban.com
 DONEZTEBE - T. 948 450 282 - doneztebe@red.renault.es

URTEBETETZEAK



Igantzik **Garazi Obeso Sein** gure etxeko bihurriak 2 urte beteko ditu ekainaren 2an. Aunitz urtez etxekoan eta bereziki Amaneren partetik.



Berñat **Goñi Errandoneak** 6 urte beteko ditu ekainaren 3an. Zorionak eta aunitz urtez Berako eta Arantzako familiaren partetik.



Aranoko **Nahia Larrea Arozenak** 6 urte bete ditu maiatzaren 26an. Segi haunditzen eta muxu potolo bat amatxo eta aitatxoren partetik.



Leitzako **Xiana Telletxea Buldainek** maiatzaren 11n urtebete bete du. Zorionak gure etxeko poxpolinari!



Maiatzaren 28an etxeko ttaddak, **Alain Amiano Arrijuriak**, urte bat egin du. Aunitz urtez etxekoan partetik. Muxu aunitz.



Alizia Olaizola urdazubiarrak ekainaren 2an urteak beteko ditu. Zorionak!! Hagitz ongi pasa eguna eta muxu asko.



Narbarteko **June Martin Argainek** maiatzaren 26an 5 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familia guziaren eta bereziki Iraia ahizparen partetik!



Ekainaren 12an 4 urte beteko dituen **Jare Iparragirre** sorginari, zorionak Bera eta Sunbillako familiaren partetik. Muxu potolo bat!



Oinatz Sarratea Arretxeak maiatzaren 27an 3 urte bete ditu. Zorionak!!! aurten kandela bat gehiago duzu itzaltzeko, baina duzun esperientziarekin arazorik gabe. 3 muxu potolo familiaren partetik eta bereziki zure anaia Julenen partetik, baita Porrotxen partetik ere! Jajaja!

Aunitz urtez!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak, TTIPI-TTAPAREN bitartez! Bi bide dituzu:

Internetez: <http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta Ttipi-Ttapa aldizkarian.

Bulegoan: Etor zaitez Ttipi-Ttapaaren bulegora: Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA.

Prezioa: Argazki soila: 5 €; bikoitza 10 €



ZURE IZENA

OSTATU-JATETXEA

MENUAK, KARTAK, MAHAI-OIHALAK, MUSUZAPIAK, BASO-AZPIKOAK...
Zure diseinuarekin pertsonalizatuak



HAUSTEN EZ DEN MENU ORRIA
Menu hautsezina erresistentzia handiko materialekin egina dago.

Neurriak:
14x30 cm | 15x21 cm | 15x42 cm |
21x30 cm | 30x42 cm |
Papera: 450 g. hautsezina
Aukeran matea edo distiraduna



MENU ZABALGARRIA



MENU KATALOGOA



KRAFT MENU ZABALGARRIA



KRAFT PAPERETZKO MAHAI-OIHALA



MENU ENKAPSULATUA



PLASTIKOZKO MAHAI-OIHALA



MAHAI-OIHAL HAUTSEZINA



PVCzko MAHAI-OIHALA



PVCzko MAHAI-OIHALA



KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea

Info +:
Tel: 948 63 54 58
kulturkari@ttipi.eus
www.kulturkari.com

**ESKATU
AURRE
KONTUA**

HERIOTZAK

- **Bernard Ayez**, Sarakoa, apirilaren 29an, 78 urte zituela.
- **Juan Martin Mendikoa Maritorea**, Arizkungoa, maiatzaren 1ean, 76 urte zituela.
- **Nicole Madeleine Iturria**, Sarakoa, maiatzaren 5ean, 68 urte zituela.
- **Annie Jacqueline Roger-Legrand**, Lesakakoa, maiatzaren 10ean.
- **Lorenzo Otxandorena Almandoz**, Doneztebekoa, maiatzaren 12an, 81 urte zituela.
- **Maitane Gartzia Etxeberria**, Berakoa, maiatzaren 14an, 43 urte zituela.
- **Jose Antonio Anzizar Iriarte**, Lesakakoa, maiatzaren 14an, 89 urte zituela.
- **Guillermo Etxenike Mendikoa**, Irurikakoa, maiatzaren 19an, 87 urte zituela.
- **Mª Josefa Oteiza Maisterrena**, Arizkungoa, maiatzaren 20an.

SORTZEAK

- **Entzo Latasa**, Sarakoa, maiatzaren 1ean.
- **Haizea Olaskoaga Albisu**, Goizuetakoa, maiatzaren 15ean.

ESKELAK JARTZEKO edo OROIGARRIAK EGITEKO:

948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

► Eskelak, Esker Onak eta Urteurrenak

Ttipi-Ttapa aldizkarian + ERRAN.EUSen: 90 € Ttipi Txartela dutenek %10eko deskontua.

► Oroigarriak egiten ditugu, pertsonalizatuak, nahi den argazki eta testuekin prestatuak. Ikusi ereduak gure bulegoan, (Koskontako bidea, 7-1 · 31770 LESAKA).



BEILATOKIAK
ELIZONDON, BERAN ETA DONEZTEBEN
Zerbitzuak Baztan, Beran, Bortzirietan eta Malerrekan

Hurbiltasuna eta begirunea

T. 948 05 90 90 izaratanatorio.com



BAZTAN BIDASOA
Ehorzketak Zerbitzuak

BAZTAN: ELIZONDON Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERAN San Jose Beilatokian
MALERREKA: DONEZTEBEN Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | 948 48 95 50
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeka

IRACHE
tanatorioak

24 ORDUKO TELEFONOA 948 63 74 04

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA

ETXEETAN ZERBITZUAK

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALEETATIK EDOZEIN HERRITARA

LOREAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

www.tanatoriosirache.es

ESKELAK eta HILBERRIAK

eguneratuak
erran.eus
webgunean



KONTATU KONTUAK



Ezkurran hitzordua. Maiatzaren 18an Ezkurran egin zen Malerreka Egunean argazkian ageri diren Iturengo, Zubietako eta Elgorriagako dantzariak ez zuten hutsik egin. Oinak arin-arin astinduz dantza-saio ederra eskaini zuten.



Goizuetako kanpinean denboraldia hasi dute. Maiatzaren 18an, hamaiketako ederra eginez hasi zuten udako denboraldia Goizuetako Iskibi kanpinean. Kanpoan eguraldi txarra bazen ere, giro ederra sortu zen barrenean.



AEKko ikasleak Arantzán. Maiatzeko hilabetearen, AEKko ikasleek pare bat barnetegi egin dituzte Arantzako Aterpean, eta ingurua ezagutzeaz gain, ahozko azterketa prestatzen ere aritu dira. Egonaldi eder hori gogoan, Arantzán ikasitakoa baliagarri egingen ahal zaie azterketetan! Zorte on!



Iker Salaberria txapeldun Ajangizén. Maiatzaren 19an Cuairanekin bikotea osatuz Ajangizko (Bizkaia) VII. Esku Pilota Txapelketa irabazi zuen goizuetarrak. Finaleko pilotari onenaren saria ere jaso zuen.




Luziano Mitxelena irabazle Sorian. Transbidasoa-Euro-master-Inurrieta taldeko Luziano Mitxelena txirrindulari lesakarrak, bere kategorian (m 60) Soriako Challengea irabazi zuen maiatzeko bigarren asteburuan.



ARANTXA ETXEBERRIA / JAIONE IRIGOIEN / OIHANA DAGERRE

Giro ederra Herri Haitadan. Lehiaren gainetik giro ederra nagusitu zen maiatzaren 18an Ainhoan egin zen Herri Haitada egunean. Etxalar, Bera, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara eta Ainhua kirola, kultura eta bertze hainbat alor nahasi zituzten hamabi probetan lehiatu ziren, eta hondarrean etxeko taldea nagusitu zen, Ainhua, bigarren Sara gelditu zen, hirugarren Etxalar, laugarren Zugarramurdi, bosgarren Urdazubi eta seigarren Bera.

PLAZAN BAZAN




ITZALA

Zein da itzal zuzena?



DOMINOA

Marraz itzazu lauki zurietan
falta diren irudiak,
dominoak zentzua izan dezan.



INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak



BAZTANGO HERRIAK

Ba al dakizu zeintzuk diren Baztango 15 Herriak?

Ondorengo zerrenda honetan 15 herri Baztangoak dira eta bertze 15 herri ez.


LESAKA | ELIZONDO | BERA | AMAIUR | LEITZA | AZPILKUETA | ARIZKUN | LEKUNBERRI | ANIZ | DONEZTEBE
DONAMARIA | ERRATZU | LEKAROZ | IGANTZI | OIEREGI | ELBETE | ARESO | ARANTZA | GARTZAIN | ARRAIOZ
ETXALAR | LEGASA | IRURITA | ZIGA | ITUREN | BERROETA | ALMANDOZ | ZUBIETA | ORONOZ-MUGAIRI | ARANO

ONGI

1. **Elizondo**
2.
3.
4.
5.
6.
7.
8.
9.
10.
11.
12.
13.
14.
15.

Gaizki

1. **Zubieta**
2.
3.
4.
5.
6.
7.
8.
9.
10.
11.
12.
13.
14.
15.



Ba al dakizu goiko 15 herri horiek mapan kokatzen?

Asmatu zein herri den eta osatu goiko gurutzegrama

ETZANDAKOAK

2. Baztango miradore famatua herri honetan dago.....
5. Aspaldiko urtetan kaputxinoek eskola haundi bat zuten.....
8. Baztango herririk haundiena da... **ELIZONDO**
9. Belatera joateko Baztango azken herria da.....
11. Santiago bidea pasatze da herri honetatik.....
13. Supermerkatu haundi bat duen herria.....
14. Hartza oso famatua da herri hortan.....

GOITIK-BEHERA

1. Elizondotik arras hurbil dagoen herria.....
3. Baztanen biztanle guttien dituen herria da.....
4. Erreboteko plazan laxoan jostatzen da.....
6. Baztanen kanpina duen herri bakarra da.....
7. Elizako gorapean frontoia baduen herria.....
10. Pilarika egunean ospatzen dituzte bestak... **GARTZAIN**
12. Aspaldiko urtetan Nekazaritza eskola zegoen bertan.....
13. Gaztelu bat badu herri kaxkoan.....

Ttapi Txartela

arekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK
-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57
info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

734

aleko
irabazleak >



ZOZKETAK

Baztan Abentura Park - 2 sarrera
Inigo Olano Zubillaga | LEITZA
Zugarramurdiko lezeak - 2 sarrera
Martin Mindegia Erasun | ITUREN
Donostiako aquariuma - 2 sarrera
Juan Ignacio Arriada Iparrea | ARIZKUN
Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera
Arantxa Arregi Alberro | DONEZTEBE
Buatxabal - Kamiseta bat
Asunción Ugarte Gortari | ELIZONDO
La Rhune - 2 sarrera
Nati Martikorena Mindegia | LESAKA
Wow Park - 2 sarrera
Maria Cruz Plaza Aroztegi | URDAZUBI
Lanku - Liburu bat
Jabier Caballero Otaegi | ARESO
Lanku - Liburu bat
Blanca Etxeberria Hualde | BERA

2 sarrera



IRRISARRI LAND
www.irisarriland.com

2 sarrera



ASTIZKO LEZEAK
www.mendukilo.com

2 sarrera



DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
www.eurekamuseoa.es



2 sarrera helduentzat

ONDDO TA PUNTO
www.onddotapunto.com



Kamiseta bat

LA RHUNE
www.rhune.com/eu



2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

ZOZKETA



Wow park
Votre Parc Aventure

2 sarrera
WOW PARK
<http://wowpark.fr>

LIBURUAK



Puka eta mateoren oilarra
Seme bakarra izan nahi dut

elkar
www.elkar.eus

LA GUNTZAI LEAK



www.katxiporreta.eus



www.onddotapunto.com